À l'école, outre les enfants et les jeunes, une autre communauté peut favoriser l'utilisation de la langue basque, ou au contraire entraver le développement nécessaire de cette utilisation. Il s'agit de la communauté des parents.

Pour promouvoir d'utilisation de la langue basque, nous devons nous intéresser aux habitudes linguistiques à la maison, car c'est l'habitude prise dans le foyer familial, et dans une large mesure la langue maternelle, qui influera par la suite sur l'utilisation de la langue par l'individu.

Les parents ont beaucoup à dire sur la connaissance et l'utilisation de la langue basque. Il est certain que si les parents prennent l'habitude de parler en basque, cela aura une influence sur le modèle donné aux enfants. Qu'il voie ses parents utiliser le basque sera pour l'enfant et le jeune d'une grande aide pour l'inciter à utiliser le basque, aussi bien avec la famille qu'avec les amis.

De plus, les parents constituent un réseau de relation pertinent. Étant donné qu'il y a formation d'un groupe qui sera consolidé par les parents des enfants de la classe, nous devrions prendre en compte ce réseau de relations que constituent les parents.

Pello Jauregi a mené une recherche sur ces groupes de parents, et a conclu que dans la mesure où les groupes sont nouveaux, ces relations entre parents sont très importantes pour plusieurs raisons :

- Comme ils sont nouveaux, il est possible d'établir de nouveaux critères linguistiques.
- Les parents passent beaucoup de temps dans ce type d'environnement.
- Il se forme de nouveaux réseaux sociaux qui peuvent durer six, sept, voire dix ans.
- Certains de ces groupes de parents ont lié de nombreuses amitiés entre adultes, et par conséquent, très souvent, leur influence va au-delà du cadre de l'enfant.

Plusieurs tendances ont été identifiées au moment de la formation de ces groupes :

- Ils se forment autour de la classe de l'enfant. Dans une même classe, deux ou trois sous-groupes peuvent se former.
- Ce sont les groupes de parents formés autour du premier enfant qui durent le plus longtemps. Il est plus difficile de constituer des groupes de parents dans l'environnement de la classe du deuxième ou du troisième enfant, sauf lorsque la différence d'âge par rapport au premier est réduite (deux ou trois ans de différence). Si la différence d'âge entre l'aîné et le dernier est considérable (cinq ans ou plus), alors il est possible que le père ou la mère de l'enfant s'implique dans un autre groupe de parents.

Dans le cadre de cette recherche, les parents ont été classés en trois groupes : les bascophones, les bascophones inattentifs et ceux qui ne comprennent pas la langue basque.

Chacun de ces groupes a une tâche à remplir pour surmonter les obstacles et construire un environnement basque solide.

Il existe une voie directe permettant d'atteindre ces parents : les réunions scolaires. Avec l'aide du collègue ou de l'*ikastola*, les parents sont invités à une réunion, par classe. Une seule réunion peut suffire lorsque les élèves sont scolarisés pour la première fois. Au cours d'une brève réunion, il est possible de présenter aux parents les outils dont ils disposent.

L'école à elle seule ne peut pas bascophoniser les enfants et les jeunes, ni influencer leur attitude et leur comportement vis-à-vis de la langue. Dans cette entreprise, les agents et les associations de la commune, les institutions et les lois ont également un grand rôle à jouer. Il est indispensable que nous travaillions tous en équipe pour qu'au moins l'école, et surtout elle, remplisse la responsabilité qui lui incombe.

Dans la communauté autonome du Pays basque, la loi lui a assigné un devoir. À l'issue de l'enseignement obligatoire, tous les jeunes doivent maîtriser au niveau adapté les deux langues officielles de la CAB.

L'école et la société ont parcouru un long chemin dans ce sens. Et tous possèdent une expérience suffisante pour établir au moins les aspects à promouvoir pour que la loi soit respectée.

L'école a une grande responsabilité et doit être le moteur de tout cela. Mais elle a besoin de l'aide et de la collaboration de la société et des institutions.

Un discours adapté serait nécessaire afin que la société se rende compte de l'importance de la tâche : pour que l'école soit informée de ce qu'elle peut et de ce qu'elle ne peut pas faire, et donc pour représenter ce que l'on peut attendre ou non d'elle. Ce discours devrait imprégner jusqu'aux os la société dans son ensemble et les institutions, des municipalités aux institutions supérieures. Celles-ci devraient agir de manière cohérente et formelle à ce niveau. Sinon, comme nous l'avons vu précédemment, l'école à elle seule ne pourra pas assurer le respect de ce que la loi dispose.

Tenant compte de tout ce qui a été mentionné, à partir de l'école, nous avons élaboré dans cette étude un ensemble de programmes qui peuvent contribuer à une plus grande utilisation du basque.

Les programmes que nous avons présentés, gérés par plusieurs agents, organisations, institutions et groupes, ont déjà été mis en œuvre au Pays basque. Cependant, ils ne le sont pas tous, et cela n'était pas notre intention.

Juillet 2010

2. IKASGELAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO ZENBAIT PROGRAMA



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Ikasgelan euskararen erabilera areagotzea bada gure helburua jakin behar dugu, lehenik eta behin, ikasleen hizkuntza-jarrera eta hizkuntza-jokabideetan eragin beharko dugula. Eragin hori lortze aldera, oinarritzko ezinbesteko hainbat baldintza ziurtatu beharko dira.

Lehen eskolako hizkuntzak euskara izan behar duela; hots, irakas-, ikas- eta erabilera-hizkuntza nagusia euskara izango dela, alegia. Beraz, arlo kurrikularrekin zerikusia duenaz gain, ikasgelan euskaraz bizitzea funtsezkoa izango da ikasleen artean euskararen erabilera sustatu eta areagotu nahi badugu, behintzat.

Hainbat adituk adierazitakoaren ondorioz, jada jakina da ikasleek euskara beren komunikazio-hizkuntza izateko hautua egin ahal izateko bi baldintza gutxienez bermatu behar direla: ikasleek euskara ongi ezagutu behar dute, alde batetik; eta, bestetik, ikasgela barruko bizitzak euskaraz garatu behar du.

Ez dago zalantzarik ikasleen hizkuntza-trebetasunak garatu ahal izateko, horiek etengabe hitz egitera eta idaztera bultzatu behar ditugula, idatzizko zein ahozko ekoizpenak ugari eginez.

Edgar Dale pedagogoa estatubatuarrak ikaspenaren sakontasuna adierazten duen esperientziaren konoa egin zuen. Konoaren gailurrean ahozko adierazpena dago, hau da irakurri eta entzundakoak ikasten duguna.

Konoaren hondoan, berriz, esperientzia zuzena dago; ikasi eta bereganatu nahi den jarduera norberak egitea, alegia.

Konoak erakusten duenari jarraituz, ikasleek benetako gertakariak simulatzeak eta, hainbatetan, irakasleen paperean aritzeak haien ikaspenak sakonagoak, eta beraz sendoagoak, izaten lagunduko dute.

Ikaskuntzaren konoa (Edgar Dale)



Adapted from Wiman & Meirhenry, Educational Media, 1960 on Edgar Dale

Itzulpena: Maitze Goñi

Aurreko lanetan aipatu da egindako ikerketa ugariek argitan utzi dutela hizkuntzak komunikaziorako baliatzen diren neurrian eskuratzen direla. Beraz, ikasgelan egiten diren jarduerak eta ekintzak euskararen erabilera bultzatu beharko lukete.

Ildo horretan, hizkuntzen arloaren antolaketaz gain, hausnartu eta neurtu beharko litzateke curriculumeko gainerako jakintza-arloek ere hizkuntzak eskuratzeko egin dezaketen ekarpenaz.

Adituek esan dute, eta ikerketek erakutsi dute, ikasleek hobeto ikasten dutela edozein hizkuntza beste zerbait ikasten ari diren bitartean.

Ikasgelan burutu daitezkeen ekimenek eragin-eremu nagusia arlo kurrikularrean dute, ezpairik gabe.

Aurreko lanetan zabalago azaldu bada ere, oraingoan aipatu behar da, bederen, ikasgelan euskararen erabilera hainbat faktorek lagundu edo oztopa dezaketela: hizkuntza-proiektuak, eleaniztasun-printzipioak, murgiltze- eta mantentze-ereduak, euskararen irakaspenari eskaintzen zaion denborak, euskara gutxiago duen ikasleari eskolak euskara gehiago eskainiz egindako konpentsazioak, ahozkoatasuna lantzeak, interakzioa ahalbidetzen duten metodologiak erabiltzeak, ikasleak ebaluatzeaz gain prozesuak eta metodologiak ebaluatzeak, afektibitate arloak, pertsona-espazio-hizkuntza arteko identifikazioak, etxeko hizkuntza-ohiturak, jarrerak eta jokabideak, lan kurrikularrean osagarri egiten diren irteeren eta bestelako ekimenen hizkuntza eskaintzak eta abar. Horiek guztiak, gutxienez, ongi zaindu beharreko aldeak lirateke.

Azken bi aldeek, ordea, ikasgelako hormak gainditzen dituzte. Hala ere, bere biziko garrantzia dute. Gurasoekin eta ikasgelaz kanpoko edonorekin euskaraz egingo da, ahal den guztietan. Ikasgelaz kanpo egingo diren irteerak aurretik prestatuko dira euskaraz izan daitezen.

Ondorioz, ikasgelan euskararen erabilera areagotzeko ahaleginean lagun dezaketen hainbat programa aurkeztuko dira jarraian. Batzuk ikasgelan propio lantzekoak dira, ikasleen eta irakasleen artekoak, hain zuzen.

Beste batzuek, aldiz, beste hainbat lan-esparru proposatzen dituzte, ikasleen hizkuntza-jarreretan eta hizkuntza-jokabideetan eragiteko garrantzitsuak direlakoan.

Hala, gurasoak, motibazioa, jarrera, lagunarteko hizkera, jolas ordua, IKTak, eta elkarrekin gelaz kanpo egiten dituzten egonaldiak jomuga eta eragin-esparru dituzten beste zenbait proposamen ere aurkituko dituzu hemen.

**IKASLEEKIN EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA JOKABIDEAK
LANTZEKO PROPOSAMENA**

HARTZAILEAK	LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleak.
KUDEATZAILEAK	EBETE hizkuntza zerbitzuak.
BITARTEKOAK	<p>Oinarri bakoitzeko hainbat tresna eskaintzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzak eta identitatea: 9 tresna • <i>Nolako euskalduna izan nahi dut?</i> 4 tresna • Euskara gehiago erabiltzeko zailtasunak: 11 tresna • Gero eta euskara gehiago erabiltzea eta horretan gustura aritzea: 8 tresna
DESKRIBAPENA	<p>Programa hau ikasleekin jarrerak lantzeko proposamena da. Lau oinarriren gainean eraikitzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzak eta identitatea: Euskarak eta euskaldun izateak identitate bat ematen digu. Landuko diren gaiak honakoak dira: kulturekiko eta hizkuntzekiko aurreiritziak, hizkuntzekin nolako harremana dugun, Euskal Herriko kulturak eta hizkuntzak eta abar. • <i>Nolako euskalduna izan nahi dut?</i> Euskararen aldeko hautu kontzientea egitea nahi badugu, galdera hau egitea beharrezkoa da. Atal honetan, besteak beste, gisa honetako galderak erantzun beharko dira: zenbat euskara, non eta norekin erabiltzen dut? Norekin erabiliko nuke gehiago? • Euskara gehiago erabiltzeko zailtasunak: euskaraz gehiago egiteko borondatea izan arren, kanpo faktoreek eta norberaren faktoreek zailtasunak eragiten dituzte. Errealitatea ezagutu behar dute eta gaur egun hainbat zailtasun edukitzea normala dela esan behar zaie. Zailtasunak aztertzeko eta zailtasun horiek gainditzeko hainbat dinamika proposatzen dira. • Gero eta euskara gehiago erabiltzea eta horretan gustura aritzea: eguneroko bizitzan euskaraz gero eta gehiago egiteko jokabidea hartzea sustatu nahi bada, ikasleei jokabide hori sustatzeko tresnak eskaini behar zaizkie eta lagundu euskara gero eta gehiago erabiltzea gustura egin dezaten. <p>Oinarrien helburua bat-batean lortuko ez den arren, ez dugu oinarri bat gainditu behar beste bati heltzeko. Oinarrien artean lotura handiak daude, horregatik, hainbat oinarri nahastu eta progresio moduan kokatu dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa-progresioa: LHn edo DBHko azken mailan egingo direnak ez dira maila berekoak izango. Lehenean kokatzen eta konturatzen hasi behar dute, eta, bigarrean, sakontzen eta barneratzen.

	<ul style="list-style-type: none"> • Egoera babestuetatik egoera askeetara: lehenengo ikasturteetarako proposatzen diren jarduerak eskolaren eremuan kokatzen dira eta ikasturteetan aurrera egin ahala, kalerako bidea egingo dute. • Pauso txikietatik pauso handiagoetara: LHn pauso oso txikiak proposatzen dira oinarri guztien kasuan, eta adinean aurrera egin ahala pausoak handiagoak eta zailagoak izango dira. <p>Oinarri bakoitzak hainbat tresna aurkezten ditu. Bestalde, hainbat ideia eskaintzen ditu ikasleek euskararekiko jarrerak eta jokabideak indartzeko: erreferenteak, euskararen aldeko kanpainetako mezuak, ikasleen euskara batzordeak eta abar.</p>
NON BURUTU DEN	Programa, orain arte, Bilboko Karmelo ikastolako LHko 2. eta 3. zikloan. Halaber, Debagoienako Arizmendi ikastolako DBHn eta Batxilergoan.
KONTAKTURAKO	EBETE euskararen erabilera sustatzeko balibideak eta tresnak www.ebete.org info@ebete.org Tl: 660 245 539

MOTIBAZIO-SAIOAK	
HARTZAILEAK	DBHko eta DBHoko gazteak
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa.
BITARTEKOAK	Saioen izaera anitza izan liteke: jolasean oinarritutako dinamikak, hausnarketara bideratutako ariketak, intentsiboak edo noizbehinkakoak, ikasturte osoan jarraitutasuna izango dutenak eta abar.
DESKRIBAPENA	Programa hauek ikastetxean bertan, eskola-ordutan gauzatu dira. Horien helburua izango da gazteak euskara erabiltzeko jokaera aktiboa izan dezan, sentsibilizatzea eta hizkuntzaren jendarte-ikuspegiak eta bere parte-hartzeaz hausnar dezan. Horretarako, elkarteak, gazteentzako motibazio-saioak prestatuko ditu.
NON BURUTU DEN	Hainbat herritako ikastetxetan egiten ari dira motibazio-saioak: Bergaran, esaterako.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

ERABILERA SUSTATZEKO HIZKUNTZAREKIKO JARREREN LANKETA	
HARTZAILEAK	DBHko ikasleak
KUDEATZAILEAK	Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Eskola
DESKRIBAPENA	<p>Debako Udalaren eskariz, DBHko ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko hizkuntzarekiko jarrerren lanketa egitasmoa garatzen hasi zen. Bi helburu ditu, batik-bat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • DBHko ikasleen artean hizkuntza baten ikas-irakas-kuntzan aurki ditzakegun alderdi guztien ikuspegi globalagoa lortzea • Hizkuntza-arau eta -jarrerrei dagozkien kontuak curriculumaren osagai izatea <p>Horretarako, Urtxintxa Eskolako hezitzaile batek ikasleekin hainbat gai landu ditu.</p>
NON BURUTU DEN	Debako eta Ordiziako hainbat ikastalde.
KONTAKTURAKO	Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Elkartea www.urtxintxa.org gipuzkoa@urtxintxa.org Tl: 943 270 033

LAGUNARTEKO HIZKERAREKIN JOLASEAN	
HARTZAILEAK	13-14 urteko gazteak.
KUDEATZAILEAK	TTAKUN Kultur Elkartea eta Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Eskola.
BITARTEKOAK	Euskarazko esamolde erakargarrien zerrenda.
DESKRIBAPENA	<p>Programa hau 10 orduko modulua da, eta 2 orduko 5 saiotan garatzen da. Hiru gairen inguruko erregistro kolokiala lantzen da: adarra jotzea, haserretzea eta ligatzea. Gazteek jolasean ari diren bitartean lantzen dituzte esamoldeak. Aisialdiko metodologian oinarritzen da. Saioen helburuak, berriz, hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adarra jotzea, ligatzea eta haserretzea gaien inguruan esamolde batzuk lantzea. • Gazteek egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala erabil dezaten animatzea. • Gazteei hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasa daitekeela erakustea. • Gazteek euskarazko erregistro kolokiala erabiliz gustura sentitzea.

	<ul style="list-style-type: none"> Saiotatik kanpo erregistro kolokiala euskaraz erabili dezaten bideak jartzea. <p>Erregistro kolokiala lantzeko giro informalak sortzen ahalagintzen da programa; hau da, egoera komunikatibo naturalak sortzen.</p> <p>Bestalde, eredu moduan eskaintzen diren eta lantzen diren esamoldeek gazteentzako gertukoak eta erakargarriak izan behar dute.</p> <p>Era berean, hitanoak presentzia duen inguruetan, hika erabiltzea bultzatu nahi da egitasmo honetan.</p>
NON BURUTU DEN	Nafarroako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuaren egitasmoa izan zen eta Nafarroako bost ikastetxetan garatu zen.
KONTAKTURAKO	TTAKUN Kultur Elkartea www.ttakun.com ttakun@ttakun.com Tl: 943 371 448

EUSKALJAKINTZA: EUSKARA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

HARTZAILEAK	DBHO2. mailako ikasleak.
KUDEATZAILEAK	Ordiziako Jakintza ikastolako euskara-irakaslea.
BITARTEKOAK	Blogak; wikiak; webquestak; batzaileak; marka-gune sozialak; <i>Solasean</i> , elkarrizketa lantzeko webquesta; <i>Ahozkotasuna lantzen</i> , ahozkotasuna lantzeko webquesta; <i>XX. mendeko literatura</i> , XX. mendeko euskal literatura lantzeko webquesta; <i>Irakurlearen txokoa</i> , irakurzaletasuna bultzatzeko txokoa; eta <i>Entzun</i> , boz gorako irakurketa eta euskal literatura sustatzeko gunea.
DESKRIBAPENA	Ikasleen hizkuntza-trebetasunak garatu ahal izateko, etengabe hitz egitera eta idaztera bultzatu behar dira, idatzizko zein ahozko ekoizpenak erruz eginez. Bide horretan, ikasleek benetako gertakariak simulatzea eta, hainbatetan, irakaslearen paperan jartzea baliagarria da.
	Programa honen abiapuntua DBHO2ko ikasleen euskara gaiarekiko motibazio eza da, batik bat.
	Era berean, garbi ikusi zuten web 2.0 delakoak orokorrean asko eskaintzen zuela, eta irakaskuntzako arloan bereziki emankorra izan zitekeela. Alde batetik, doaneko eta erabilerrazak diren tresna mordoa jartzen du eskura; eta, bestetik, partekatzea, ezagutza denon artean eraikitzea, autonomiaz jokatzeko, irakaslearen rola aldatzea eta abar oinarrian

	<p>dituen filosofia berri bat.</p> <p>Programaren oinarria blog bat da, eta hori bihurtu da gaiaren ardatz nagusi.</p> <p>Blogaren helburuak hauexek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara jakintzagaian DBHO2n eman beharreko edukiak teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak erabiliz jorratzea, sarean dauden baliabideei onura ateraz. • Euskarazko irakurmena, idazmena, entzumena eta ahozkotasuna kilikatzea. • Ikaskuntza aktiboa bultzatzea. • Talde-lana sustatzea (elkarrekin lan egiten ikasi, partekatu...). • Ohiko irakasle/ikasle rolak aldatzea (denok denongandik ikasi: ikasleek irakasleengandik, ikasleek beste ikasleengandik, bai eta irakasleek ikasleengandik ere). • Ikasleen ikaskuntza-prozesuan euskarri digitalaren erabilera sustatzea eta indartzea. • Ikasleak bereganatzea eta gaiarekiko motibazioa piztea. • Euskararekiko jarrera aldatzea, euskararekiko jarrera benetan aktiboa lortuz. • Sortutako ezagutza jendartearen esku jartzea <p>Programaren lan ardatz nagusienak, berriz, hauexek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak proiektuetan banatutako ikaskuntza-irakaskuntza prozesua gidatzen du, proiektu horiek errealitatetik ahalik eta gertuen egon daitezen ahalginduz. • Ikasleak dira, irakaslearen laguntzarekin eta honen gidaritzapean, ikasteko materialak sortu eta gainerrako ikasleen aurrean irakasle papera hartzen dutenak. • Irakasleaz gain, ikasleek ere proiektu gehienen balarazioan esku hartzen dute. • Sortutako guztia— apunteak, multimedia-aurkezpen eta ariketak, informatikako aplikazioen itzulpenak, tutorialak, eta abar— denon eskura jarri ohi ditugu. <p>Idazmena jorratzeko hainbat lanketa eramaten dituzte aurrera: blogean argitaratzeko artikulua idatzi, taldeka istorio elkarreragileak sortu, aplikazio informatikoak itzuli eta abar.</p> <p>Elkarriketa lantzeko, berriz, webquesta erabiltzen da. Horren diseinuan oso kontuan hartu da ikasleak bakarka kaleraren irtenaraztea, autonomia lantzea, alegia.</p> <p>Ahozkotasuna lantzeko, oster, ikasle bakoitzak audioblog bat sortu behar du. Prozesuaren amaieran, ikasle bakoitzak</p>
--	---

	<p>4 minutuz ondo egituratutako azalpena eman behar du gela osoaren aurrean horretarako prestatutako eskemaren laguntza bakarraz. Ikasle batek hitz egiten duen bitartean, beste guztiak adi egon behar dute, ondoren, txantilo bat erabiliz, hitz egin duenaren gainean balorazioa egiteko. Esparru eta gai guztietara heltzea da nahia, eta horretarako, metodologian eta ikas-irakaskuntza prozesuan eragitea ezinbestekoa da.</p>
NON BURUTU DEN	Ordiziako Jakintza ikastolan.
KONTAKTURAKO	Ordiziako JAKINTZA ikastola www.euskaljakintza.com Tl: 943 160 540

ARANTZAKO ATERPETXEA	
HARTZAILEAK	LHko 3. mailatik DBHko 3. maila arterako ikasleak
KUDEATZAILEAK	Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Eskola eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskara Atala.
DESKRIBAPENA	<p>Arantza aterpetxeko egonaldiak hizkuntzaren erabilera indartzeko erabiltzen dira, besteak beste, haurrek eta gazteek eskola garaian jasotako edukiak praktikan jar ditzaten. Sei eguneko egonaldiak izaten dira udalekuetan, uztailen eta abuztuan, eta bost egunekoak ikasturtean zehar, astelehenetik ostiralera. Bigarrena aukera denean, irakasleekin joaten dira. Ikastetxean igarotzen dituzten orduen aldean, lau edo bost aldiz gehiago luzatzen dira harremanak, eta kantitatean baino gehiago, kalitatean lortzen dira emaitzarik esanguratsuenak. Testuinguru horretan egiazko harremanak sortzen dira ikasleen eta irakasleen artean.</p> <p>Bestalde, Arantzako herriak berak ere egitasmoaren helburuak lortzen laguntzen du. Haurrak kalera irteten direnean kaleran entzuten duten hizkuntza euskara da. Ondorioz, herri-tarrekin komunikatzeko euskara ezinbestekoa dute.</p> <p>Metodologia aldetik hizkuntza- eta animazio-jolasak erabiltzen dira, baina garrantzia handia ematen zaie ekintza antolatuen ez dauden uneei: esnatzea, otorduak egitea, atsedeen-garaiak, dutxa-garaia, oheratzea eta abar. Horiek guztiak ongi antolatu beharreko eremuak dira, eguneroko bizitza osatzen dutenez, haur eta gazteek gaztelaniaz mintzatzeko arrisku handia baitago.</p>

	<p>Astean zehar ikasleek egiten duten aurrerapena neurtzeko ebaluazioa egiten da. Lehen egunean ebaluazioa egiten da ikasleak nola ikusten dituzten eta zer maila duten jasotzeko. Azken egunean berriro egiten dute ebaluazioa, eta lau ataletan banatzen da: euskararekiko jarrera positiboa edo negatiboa, motibazioa, ezagutza eta erabilera. Ebaluazio horrek badu beste helburu bat, hain zuzen ere, haur eta gazteek zer moduz pasa duten jakitea.</p>
NON BURUTU DEN	Arantzan.
KONTAKTURAK	<p>Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Elkarte www.urtxintxa.org gipuzkoa@urtxintxa.org TI: 943 270 033</p>

JOLAS-ORDUA

HARTZAILEAK	Edozein adineko ikasleak.
KUDEATZAILEAK	SORTZEN-IKASBATUAZ
BITARTEKOAK	<p>Adinaren arabera, curriculumak eskaintzen dituen edo beste iturrietatik jasotako jolasen bilduma osatuak eta sistematizatuak, jolas eta kirol mailako ohiko komunikazio-egoerak lantzeko behar diren hiztegi teknikoak, esamoldeak lantzeko tes-tuinguru horretara egokitzen diren antzerki eta elkarrizketak.</p>
DESKRIBAPENA	<p>Euskararen normalizazioaren ikuspegitik, besteak beste, zainketa aktiboaren erantzukizunaz eta eginkizunaz gogoe-ta egitea eta antolatzea proposatzen da: jolas-saio batzuk gi-datuak proposatuz eta beste batzuk libreak.</p> <p>Jolas-saio gidatueta arduradun bat izendatu beharko litzateke, adinaren arabera eta antolatuko den jardueraren arabera. Adibidez, jarduera kirol-ekintza bada, arduraduna tutorea, gorputz-hezkuntzako irakaslea edota bigarren hezkuntzako ikasle bat izan liteke (kidetze-plana).</p> <p>Hautatutako arduradunaren eraginez, begiraleen prestakuntzan, besteak beste, jardueretan erabiliko diren baliabideen gaineko ezagutza bermatu beharko litzateke. Era berean, arduradunaren eginbeharra izango da begiraleen ardura eta egin duten lanaren jarraipena egitea, ikasturte hasieran eta hiruhilero haiekin bilduz, esaterako.</p> <p>Ikasgelan ikasitako eta landutako jolas/joko eta kirolak praktikatzeko astean bi edo hiru egun izendatu, edo hilean behin izan liteke.</p> <p>Jolastokia guneetan bana liteke eta bakoitzean jolas bat gau-</p>

	<p>za liteke, jolastokiko jolas-bizitza euskararekin identifikatzeko helburuz.</p> <p>Ekintza horiek egin aurretik komeni da euskararen erabilera ziurtatuko duen arautegia prestatzea: puntuazioak eman, ezinbesteko baldintzak jarri, eta abar.</p> <p>Hilean behin-edo, beste ekitaldi bereziago bat antola liteke txapelketa gisa: irakasleen aurka aritzeak, adibidez, arrakasta handia izateaz gain euskararen erabilera ziurtatzen du. Antolakuntzarako, bigarren hezkuntzako ikasleen euskara batzordeetara edo bestelako klase naturaletara jotzea komeni da.</p> <p>Gainera, jolas-orduetan euskara erabiltzearen aldeko mezuzak zabal litezke: tutoretza orduetan, pasabideetan, megafoniaz eta abar.</p> <p>Era berean, euskal musikarekin dantza/koreografiak egiteko aukera eskaini liteke ondoren emanaldiak egiteko edo bideoan grabatzeko.</p> <p>Atsedanak erabil litezke ere irratsaioak egiteko euskaraz.</p> <p>Ekimen horiek guztiak lagundu daitezke arlo kurrikularrean, jarduera horien inguruan gehien erabiltzen diren hitz eta esamoldeak identifikatuz, eta bertan haien lanketa egituratuz eta txertatuz.</p> <p>Oso garrantzitsua da jolastokian parte hartzen duten bitartekari guztiak euskararen aldeko erreferente garbiak izatea eta adostutako estrategiak erabiltzea. Ikasle guztiak ohartarazi behar dira jolas-garaia, ikasgela bezalaxe, euskararen eremua dela.</p> <p>Joko/jolasa eta horien gaineko hizkuntza-edukiak eremu ez-formalari badagozkio ere, denon artean adostutako ikasgai eta tarteetan landu beharko dira. Lanketa hori mailakatu eta haren programa osoa egin behar da, ikasgaietako beste edukiarekin egiten den gisan.</p> <p>Ondoren, jolas-garaian egingo dugun aplikazioak erakutsiko du egin den saiakera arrakastatsua izan den edo aldaketak egin behar zaizkion.</p> <p>Bestalde, erne eta adi egon behar da modaren eraginez-edo ikasleengan errotzen eta hedatzen diren jolasekin. Identifikatzeko erantzukizuna izan behar da, erdaraz ari badira euskarara itzultzeko eta ikasleak horretan trebatzeko. Horretarako behar diren lan saioak antolatu beharko dira.</p>
KONTAKTURAKO	<p>SORTZEN-IKASBATUAZ Elkartea www.sortzen-ikasbatuaz.org orokorra@sortzen-ikasbatuaz.com TI: 943 303 504</p>

DUZUN ONENA	
HARTZAILEAK	3 urteko haurren gurasoak.
KUDEATZAILEAK	Euskara zerbitzua ikastetxearekin elkarlanean.
BITARTEKOAK	<i>Duzun onena</i> liburuxka eta gurasoentzako motibazio-saioak.
DESKRIBAPENA	<p>Ikastetxeetako zuzendariekin eta 3 urteko geletako tutoreekin hitz egin ondoren, haiek deitu zituzten bilerak gelako bilerak bailiran.</p> <p>Gela berean egoteagatik familiak sortzen duten talde naturala errespetatzeko nahia eta jokabide asko taldean bertan bideratzea da horrela taldekatzearen arrazoia.</p> <p>Kasu gehienetan, gela bakoitzeko bi bilera antolatu ziren: bata euskaraz zekiten gurasoentzat eta bestea gutxi zekitenentzat edo ez zekitenentzat. Saioak lan-taldeko kideek eman zituzten, baina tutoreak bertan zirelarik.</p> <p>Saioetan <i>Duzun onena</i> liburuxka hartu zen oinarri gisa, saioek gehiago sakontzeko aukera eman badute ere.</p> <p>Gurasoei hainbat mezu helarazi zitzaizkien eta haiek agertutako zalantzak bildu ziren.</p>
NON BURUTU DEN	Beran, Berriozarren, Elizondon, Erronkarin, Garesen, Larrintzarren, Lekunberrin, eta Tafallan.
KONTAKTURAKO	<p>Nafarroako Gobernuko Hezkuntza EUSKARA zerbitzua</p> <p>www.educacion.navarra.es</p> <p>educacion.informacion@navarra.es</p> <p>Tl: 848 426 500 – 848 426 588</p>

**3. ESKOLAN EUSKARAREN
ERABILERA AREAGOTZEKO
HAINBAT PROGRAMA**



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Ikastetxe bakoitzak hausnartu eta erabaki beharko du hizkuntzekiko egiten duen ekimenen eta jardueren helburua zein den. Helburu hori, gainera, eskola-komunitate osoko partaideek ezagutu eta onetsi behar dute.

Helburua ikasle euskaldun eleaniztunak sortzea bada, ikasgeletan helburu hori era egokian erantzute aldera, ikastetxe bakoitzak ongi zehaztuta izan behar ditu Hezkuntza Proiektua, Hizkuntza Proiektua, Curriculum eta hezitzaileen taldea.

Gainera, eskolako hizkuntza-egoera ezagutzeko beharrezkoa da diagnosia eta hizkuntza-neurketak egitea. Hau da, hizkuntza-ezagutza mailaz maila eta ikastaldez ikastalde nola garatzen den, hizkuntza-erabilera zenbatekoa den, indarguneak non dauden eta ahuleziak edota etenak non gertatzen diren jakitea funtsezkoa da.

Diagnosi horrek kontuan izan beharko luke interakzio didaktikoan gela barruko harremanak nolakoak diren ezagutzea, arlo bakoitzean zer hizkuntza erabiltzen den, gelako lanean ikasleek ahozotasuna zenbat lantzen duten, ea zer-nolako aukera eskaintzen zaien ikasleei hitz egiteko, hizkuntzaren lanketa aurrera eramateko zein baliabidekin kontatzen den eta abar.

Hori guztia ezagututa, errealitate horrek behar luke Hizkuntza Proiektu egitasmoaren oinarria.

Hala, Hezkuntza Proiektuak eskola-hizkuntza euskara dela adierazi beharko luke, iras-, ikas- eta erabilera-hizkuntza nagusia euskara dela.

Ondoren, Hizkuntza Proiektua, Hezkuntza Proiektua den ikastetxeko marko orokorraren barruan kokatu beharko litzateke. Hizkuntza Proiektuari dagokio, hortaz, hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak jasoko dituen marko koherentea finkatzea.

Bestalde, jakina da hizkuntzaren normalizazioa lortzeko ekintza isolatuak baino plan-teamendu sistemikoan oinarritzen diren plangintzak eraginkorragoak direla.

Alde horiek guztiak kontuan, eskola bakoitzean euskararen erabilera eta hizkuntzen jabetza zein erabilera indartzeko, gela barruko zein gelaz kanpoko jarduerak uztartzeko eta era koherentean garatzeko markoa behar luke Hizkuntza Proiektuak.

Hizkuntza Proiektua taxutzerakoan eskolako hizkuntza guztiak hartu beharko liriteke kontuan, horietako bakoitzarekin ditugun helburuak definituz eta xedeak lortu ahal izateko ikastetxearen jarduera osoa aintzat hartuz; hau da, eremu pedagogikoa, alde kurrikularrarekin eta ez kurrikularrarekin; eta eremu instituzionala, ikastetxeko antolaketari eta dituen harremani dagokienean.

Hizkuntzaren jabetza eta erabilera indartzeko norabidean sortzen diren egitasmo horiek guztiak bildu eta uztartu behar dira eta Hizkuntza Proiektuan kokatu. Horretarako, bi-tartekoa Hizkuntza Normalkuntzako Planak izan beharko luke.

Hizkuntza Normalkuntzako Planak, hizkuntzaren erabilera-eremuak aurreikusi beharko lituzke eta haietan jasotako ekimenei honako oinarri hauek izan beharko lituzkete:

- Euskara gustuko gauzeekin lotzea.
- Burutu diren eta burutu gabe arrakasta izan ditzaketen jardueren identifikazioa.

- Garbi izan eta azaltzea langileen eta zerbitzuen kontrataziorako, langileen prestakuntzarako, ikastetxeko hizkuntza-paisairako, eskolako inprimaki, batzar, estatutu, ohar idatzi zein bestelakoetarako hizkuntza-irizpideak.
- Ikastetxea kokatuta dagoen inguruan euskararen aldeko giroaren suspertzailea izatea.

Gelaz kanpoko euskararen erabilera indartzeko xedea duten egitasmoek, eremu pedagogikoaren arlo ez kurrikularrak eta arlo instituzionalak hartuko lituzkete, batez ere, baina ez horiek soilik.

Hizkuntza Normalkuntzako Plana eraginkorra izatea nahi bada, baldintza hauek bete beharko lituzke:

- Hizkuntza Normalkuntzako Plana instituzionalizatzea.
- Ikastetxeetan Hizkuntza Normalkuntzako Planak sustatzea
- Hizkuntza Normalkuntzako ardurak antolatzea eta finkatzea.
- Hizkuntza Normalkuntzako arduradunaren funtzioak zehaztea.
- Aisialdiko arduradunaren eta Hizkuntza Normalkuntzako Planaren arduradunaren arteko koordinazioa bermatzea.
- Euskararen erabilera areagotzeko azterketa egitea.
- Erabileran eragiteko egitasmo osatua zehaztea.
- Hezkuntza-komunitateko partaideen artean euskararekiko jarrerak bateratzea.
- Jendarte-eragileekin askotariko egitasmoak partekatzea eta jendartean euskararentzat espazioak irabaztea.
- Esperientzien eraginkortasuna ebaluatu eta eraginkorrak diren heinean zabaltea.
- Hizkuntza Normalkuntzako Planaren sozializazioa lantzea.
- Sare tekniko eraginkorra osatzea.
- Askotariko prestakuntzaren behar kuantitatiboak eta kualitatiboak zenbatzea.

Adostasun zabala dago hizkuntzaren jabetzan eta, are gehiago, hizkuntzaren erabileran ikastetxeen eragina mugatua dela irizterakoan. Hortaz, eragina badagoenez, eginbeharreko norabidea argi izanik eta beharrezko tresnak eta bitartekoak izanik, lan eraginkorra eta baliotsua egin lezake.

Ildo horretan, ikastetxeak barruan dituen eta inguruan dituen hainbat eragile eta esparru oso kontuan izan behar ditu.

FAMILIA

Jakina da guraso askok uste dutela, heziketa euskaraz jasotze hutsak beren haurrak euskaldunduko dituela. Erabileran eragin izugarria du familien hizkuntza-transmisioak. Horregatik, ongi landu beharreko arloa da. Izan ere, biak, eskolak eta familiak, aldi berean, beharrezkoak dira gazteek euskaraz bizitzera iristeko.

Hala, gurasoen gehiengoak euskararekiko jarrera aktiboak izateak ikastetxean eta hezitzaileen lanean eragin handia izango luke.

Bestalde, eskolek gurasoen euskara eskuratzeko, hobetzeko eta hezteko erabakigarria den ekarpena egin dezakete, bide batez, euskararen erabileran ikaragarri lagunduz.

Ondorioz, artezkaritza-batzordeei eta zuzendariei dagokie erabakitzea zein neurritan inplikaraziko dituzten gurasoak egiteko horretan, eta zein estrategiaz baliatuko diren haiengan eragiteko.

Hainbat arlo jorra litezke norabide horretan: guraso-batzordeak eratu eta eskolako Hizkuntza Normalkuntzako Batzordearekin elkarlanean aritzeko bideak jorratu, ohiko guraso bileretan lan-zerrendaren barruan familiak hizkuntzaren transmisioan eta erabileran jokatzeko duten paperaz hitz egin eta abar.

IKASLEEN JARDUNA

Ikastetxeko harreman libreetan ere euskararen erabileran eragin behar da, ikasleek modu normalizatu eta automatikoan euskaraz egin dezaten.

Bide horretan, ikasleek diseina ditzaketen egitasmoak lagundu behar dira, ikasleak baitira Hizkuntza Proiektuaren subjektuak. Gainera, bereziki zaindu beharko litzateke eskolaz kanpoko ekintzetan euskaraz duen presentzia, euskararen erabileran urrats sendoak emateko lagungarri izan daitezten.

HAUR HEZKUNTZA

Adituek eta ikerketek argitan utzi dute Haur Hezkuntzak, oro har, eta 0-3 zikloak bereziki, hizkuntzen ezagutzan duen garrantzia, adin horretan hizkuntzak bereganatzeko gaitasuna aparta baita. Beraz, eraginkorrak izateko, ahalik eta modu errazenean, merkeen eta logikoenan helburuak bete ahal izateko, etapa horri lehenetsia eman beharko litzaike euskararen irakaspenean eta hor jarri beharko liriteke ahalegin eta indar handienak.

Kontuan izan behar dugu, bide batez, adin horretako ikasleen gurasoek harreman estuagoa izaten dutela eskolarekin. Une horretan, gainera, gurasoak elkar ezagutzen ari dira eta harreman-sare berria eratzen ari dira. Hastapen horretan finkatuko dira hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-jokabideak.

ETORKINAK EDO IRITSI BERRIAK

Asko lagunduko luke iritsi berriei hizkuntzekiko eskola-markoa zein den argi azaltzea. Hau da, Hezkuntza Proiektuan helburu gisa eta Hizkuntza Proiektuan zehatz jasotzen dena garbi azaltzea. Hauek liriteke ezinbestez azaldu beharko litzaikeen ideiak:

- Eskola-hizkuntza euskara da, beste hainbat hizkuntza ikasten diren arren.
- Eskolan euskaraz bizitzen da.
- Ikasle bakoitzak bere ikasgela du izendatuta.
- Ikasle bakoitzaren hizkuntza eta kultura errespetatzen dira eta gainerako ikasleek horien berri dute.

Eskolak iritsi berriarekiko hiru esparrutan lan egin beharko luke:

- **Egokitzapena:** Alde batetik, iritsi berriaren egoeraz arduratu behar du, horretarako harrera gelak antolatuz eta protokolo jakinak aplikatuz; etorri berria ikastetxean integratu dadin arduratu behar du, gelako antolaketa, gela-laguna, tutoretza lana, gurasoekin eginbeharreko lana eta abar zainduz.
- **Komunikazioa:** Ikasle berriak bere nahiak, beharrak, sentimenduak eta abar adierazteko premia du. Hizkuntzak integratzen, parte-hartzaile zuzena izaten eta lagunak egin lagunduko dio.
- **Ezagutza:** Curriculum egokituak asko lagundu dezakete euskara edukiekin batera ikasten.

IKASTETXEAK BIDERATUTAKO PRESTAKUNTZA

Hizkuntza-gaitasunean eta -erabileran eragiteko, formazio-planak antolatu behar dira ikas-

tetxean: ikasleengan benetako gaitasun eleaniztuna suspertzeko, irakasleei eta hezitzaileei hizkuntza-formazio eraginkorra eskaintzeko eta gainerako langileen hizkuntza-erabileran eragiteko.

Irakasleei dagokien prestakuntzak helburuak beteko baditu, kurrikularra eta metodologikoa izan beharko du.

Interakzio didaktikoak kalitatezkoak izateko estrategiak eskaini beharko zaizkie irakasleei, bai eta ikasleen euskararen erabilera suspertzeko estrategiei ere. Gainera, euskararen ezagutza tekniko hori guztia euskal kulturaren ikuspegi orokorrean oinarrituta lortu beharko litzateke, identitateak garrantzi handia baitu erabileran.

Bide batez, irakasleei eguneroko jardunaren gainean hausnartzen lagundu behar zaie, haien irizpideetan, espektatibetan eta usteetan eragiteko. Irakasleari duen rolaren garrantziaz kontzientziatzen lagundu behar zaio.

Era berean, euskara-irakasleak beste arloetako irakasleei zabaldu beharko lioke komunikaziorako zer lantzen duen. Horiek guztiak Hizkuntza-proiektuan jasota geratu beharko lukete, gainera.

PRESTAKUNTZA OROKORRA

Hizkuntzen irakaskuntzan eta euskararen erabileran, unibertsitatearen inplikazioa bilatu beharko litzateke. Irakaste-/ ikaste-prozesuan edota erabileran sor daitezkeen kezkek eta anbiguitateak argitzeko lagungarriak izan baitaitezke.

MATERIALGINTZA

Euskararen irakaskuntza euskal kulturaren eta euskal haurrei loturiko pedagogian txertaturik eskaini beharko litzateke. Jakinik, horrek motibazioan sekulako eragin positiboa duela.

Irakaskuntzan erabiltzen diren materialek edozein euskarritan aurkezten direlarik ere, alde hori oso kontuan izan beharko lukete.

Gaur egun hainbat argitaletzek eskaintzen dituzten materialak eta ideiak euskararen erabilera errazteko bitarteko onak dira, hala nola: kantuak, bertsoak, onomatopeiak, atsoitzak, igarkizunak, lokuzioak, antzerkia, komunikatzeko bitarteko eta kode anitzak erabiltzea (sms-ak, txatak, blogak, wikiak...), irrati saioak, poesia emanaldiak eta abar.

Norbanakoaren jarrera, interesa, identitatea eta gaitasuna garatuz iritsi beharko genuke harremanetarako hizkuntza euskara izatea lortzera. Eragin beharreko guneak, berriz: gela barruko espazioa, atsedendialdiak eta eskolaz kanpoko jardunak lirarteke. Azken bi horietan gauzatzen baitira, batez ere, gazteen arteko harreman libreak. Hortaz, horietan kideen artean harreman-hizkuntza libreki hautatzen bada, garbi dago, esparru horri eskaini behar zaiola arreta handia.

Kontua, orduan, espazio horietan ohitura sortzea edo ohitura aldatzea izango da. Gure lan-estrategiak helburu horren zerbitzura jarri behar ditugu, beraz, hezkuntza-sistemen lehen urteetatik. Horretarako funtsezkoa da:

- Ondorengoak egiteko pedagogikoaren baitan kokatzea: jolas-garaiak, eskola-orduz kanpoko kirol eta kultura-jarduerak, bazkalgaraiak, garraio-zerbitzuak, haurtzaindegi- eta zaintza-zerbitzuak, udaleku irekiak, aisialdi taldeak eta beste.

- Jarduera horietako begiraleen eta arduradunen hizkuntza-gaitasun egokia eta erabilera bermatzea.
- Ahalik eta eskaintza zabalena bideratzea familien beharrei eta ikasleen gustuei erreparatuz.
- Ekintza edozein delarik ere, hizkuntza-helburu zehatzak eranstea, eta helburu horren zerbitzura estrategia jakinak jartzea: hizkuntza-paisaia, musika euskaraz entzutea, euskal irratia entzutea, kirol-hiztegi teknikoak euskaraz erabiltzea, hita-noa erabiltzea, esamoldeak zabaltzea, akatsak bideratzea eta abar.
- Hiztun-neurketak burutzea eta hiruhilekoaren amaieran balorazioak egitea lagungarria da.

HIZKETAN IRAKATSI

Ikasleek hizketan ikastea nahi badugu, hizketan ipini behar ditugu, edo hizketan utzi behar diegu. Egunerokotasunean erabilgarriak diren ariketa praktikoak lagungarriak izango zaizkigu ahalegin horretan.

Jarduera interesgarria izan liteke ikasleak irakasle paperean jartzea, “jendaurreko azalpena” gaitasuna landuz, bide batez. Horretarako kontuan izan beharko dira honako alde hauek:

- Ikasleak gaiak jakitea.
- Osagai diskurtsiboak menderatzea: ideiak antolatzea, ordenatzea eta abar.
- Osagai linguistikoak menderatzea: zuzentasun gramatikolari erreparatzea, hiztegi zabala lantzea eta abar.
- Bestelako osagaiak: intonazio egokia erabiltzea, ahoskera zuzena egitea, ozen aritzea, eritimo egokian aritzea, gorpuzkera egokia erakustea: jarrera, keinuak, imintzioak, begirada eta beste.
- Komunikazio-egoera kontuan izatea: asmo komunikatiboak, hartzailea, hizkuntza-erregistroa eta arau soziala.

Talde lanean arituz, gainerako ikasleei aurkezpenak eginez eta beste-lekoan bidez treba daitezke ikasleak. Azken batean, egoera komunikatibo aberatsak eta anitzak eskaini beharko dizkiegu.

Bestalde, adituek eta ikerketek erakutsi dute berdinen arteko estrategiak arrakastatsuenak suertatu direla irakaskuntzan.

IKASLEAK GAZTEAGOEN IRAKASLE

Hizkuntza Normalkuntza Planetan ikasleen zuzeneko partaidetza bilatu behar dugu, batez ere LHko 3. zikloan eta DBHn. Adin helduagoko eta gazteagoko ikasleen kidezte-plana, esaterako.

Ekimenaren gakoak, ikasle batzuk eragile eta besteak hartzaile bihurtzean datza. Hona hemen egin ekimenak:

- Ipuinak irakurtzea eta kontatzea.
- Jolasak irakastea.
- Irteera gidatuak prestatzea.
- Kirol-entrenatzaile eta begiraleak izatea.

LAGUNARTEKO HIZKERA ESKOLAN

Gazteek gabezia handienak lagunekin bat-bateko egoeran erabiltzen duten hizkeran dituzte. Eskola hizkera ez-formala lantzeko leku aproposena ez bada ere, honako arloak jorra daitezke:

- Hizkera-motak landu.
- Hizkera ez formala lantzeko eta erabiltzeko uneak bilatu, erabili eta planifikatu
- Hainbat proposamen eta argitalpen erabili.

EGONALDIAK

Ikastetxe guztiek egiten dituzte bi edo hiru eguneko egonaldiak ikasturtean zehar. Irteera horietako ordu gehienak ikasleek eta irakasleek elkarrekin pasatzen dituzte, eta hizkuntzari ematen zaion erabilera funtzionala eta bizia da.

Egonaldi horiek prestatzerakoan oso garrantzitsua da alde hauek kontuan izatea:

- Aterpetxea zein herritan dagoen kokatua funtsezkoa da.
- Ekintzak ongi diseinatu behar dira.
- Une egokiak aurrez diseinatu behar dira.
- Ingurune soziolinguistiko desberdinetako ikasleen arteko egonaldiak antolatzea aberasgarria da.

ERABILERA-NEURKETA

Neurketa horiek ikasleekin egin daitezke. Tresna hori zientifikoa izan dadin, hainbat alde zaindu behar dira.

Neurketaren emaitzek ikasleekin hausnarketak egiteko balio dezakete eta, aldi berean, plangintza berriak prestatzeko abiapuntua izan beharko lukete.

Eskolan euskararen erabilera areagotu nahi badugu, beraz, gure lanean oso kontuan izan beharko ditugu, aipatu direnekin batera gurasoak, transmisioa, jolas-orduak eta bazkal garaiak, eskola-orduz kanpokoak, eskola kirola eta adimen emozionalaren arloa. Jarraian aurkezten dizkizuegun programak haietan eragitea dute helburu.

HIZPRO	
HARTZAILEAK	DBHko eta DBHoko gazteak.
KUDEATZAILEAK	Euskal Herriko IKASTOLAK
BITARTEKOAK	Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua.
DESKRIBAPENA	<p>HIZPRO ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikas-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dituen eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa da.</p> <p>Eskolako komunikazio-eremuen baitan garatu behar da; izan ere, eremu horietako bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu eta, horiei erantzunez, berariazko hizkuntza-erabilerak sortzen dira bakoitzean.</p> <p>Horenbestez, ezinbestekoa da hizkuntzen garapenean eragiten duten eremu guztiak, hots, hizkuntzekiko esku-hartzearen eremuak identifikatzea. Beraz, eskolako eremu pedagogikoan (gela barrukoa eta gelaz kanpokoa) eta eremu instituzionalean (eraketa eta barne-komunikazioa zein kanpo-harremanak) esku hartu behar da.</p> <p>Ikastola bakoitzak martxan jarriko du bere hizkuntza-proiektua garatzeko bost urteko iraupen ziklikoa izango duen ibilbidea:</p> <p>Lehenengo ikasturtean egitasmoa abiatzeko urrats nagusiak egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastolako hezkuntza-eragile guztiekin Ikastolen Hizkuntza Proiektuaren erreferentzia-markoaren gaineko hausnarketa egin. • Hizkuntza Proiektuaren beharra partekatu eta aurrerantzean urratu beharreko bidea elkarrekin adostu eta onartu. • Ikastolako komunikazio-testuinguru osoa aztertu eta hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnostia egin. • Ikastolaren Hizkuntza Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa idatzi. • Diagnostian identifikatutako beharrei erantzuteko lau urteko plan estrategikoa idatzi. • Plan estrategikoan jasotako helburuei erantzuteko urtebeterako plan zehatza— urteko plana — idatzi. <p>Bigarren ikasturtetik aurrera egin beharrekoak errepikatu egingo dira lau ikasturtez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Urteroko plana aurrera eraman eta egindako lanen ondorioz, plan hori ebaluatu: hurrengo ikasturteko plana idatzi eta hasierako Hizkuntza Proiektua dokumentua osatu. • Bosgarren ikasturtearen bukaeran plan estrategikoa ebaluatu eta horren arabera bigarren plan estrategikoa idatzi ahal izango da, urratsen zikloa berriro abian jarritz.

NON BURUTU DEN	Hasieran talde pilotu bat hasi zen ikastola batean. Gero, beste lau taldetan abiatu ziren beste hainbat ikastola. Gaur egun, Euskal Herriko ikastola guztiak daude egitasmo honetan lanean.
KONTAKTURAKO	Euskal Herriko IKASTOLAK www.ikastola.net gie@ikastola.net Tl: 943 445 108

KIDETZE-PLANGINTZA

HARTZAILEAK	DBH eta DBHoko ikasleak eragile gisa eta HH eta LHko ikasleak hartzaile gisa.
KUDEATZAILEAK	Euskal Herriko IKASTOLAK
BITARTEKOAK	Hainbat jarduera izan litezke plangintza aurrera eramateko bitarteko. <i>Adibide gisa, Kontadazu arren ipuin bat!</i> azalduko da hemen.
DESKRIBAPENA	Ikasle nagusiak eragile bihurtzen dira, txikiagoak direnen arduradun, kurrikularra izan daitekeen jarduera lantzeko. Interesgarria da, aparteko ahalegin eta ekimenik bideratu gabe, ekintza hori curriculumean txerta bailiteke, Bigarren Hezkuntzako Euskal Hizkuntza eta Literatura arloan literatura-testuen lanketarako irakurketari buruzko sekuentzia didaktiko bat biltzen dela kontuan izanik. Beraz, ahozkotasanaren helburuak ekintzaren mesedetan jarriko ditugu. Adinez nagusi diren ikasleak haur-ipuinen baten irakurketa dramatizatua lantzen jar daitezke. Gainera, jardun hori dagokion esparruan baloratua izan daiteke. Prestatutako ipuinak HH-LHko ikasleen aurrean antzeztu beharko lituzkete. Kidetze-planak erabil daitezke jolaslekuan edo eskola-orduz kanpoko ekintzetan jolasak, kirolak eta abar egiteko.
KONTAKTURAKO	Euskal Herriko IKASTOLAK www.ikastola.net gie@ikastola.net Tl: 943 445 108

TXANTXIBIRI KAMINO	
HARTZAILEAK	Ikasle-taldeak.
KUDEATZAILEAK	Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Eskola.
BITARTEKOAK	Hezitzaileak.
DESKRIBAPENA	<p>Programa honetan, Urtxintxa eskolako bi hezitzailek jolas-orduetan euskarazko jolasak egiten dituzte haurrekin. Jolasaren bidez euskararen erabilera lantzea da helburua. Haur-talde bakoitzak astean behin hartzen du parte programa honetan; beraz, talde bakoitzak astean jolas-garai bakarra erabiltzen du hezitzaileekin jolasak egiteko. Hortaz, beste jolas-orduetan libre jolas dezake.</p> <p>Programaren interesgunea Txantxibiri Kamino pertsonaia da. Txantxiburi bizikletaz bidaiatzen da. Euskal Herrian zehar dabil bizikleta gainean eta jolastea oso gustatzen zaionez, iristen den tokian bertako jolas berriak ikasten ditu. Hezitzaileak Txantxibiriren ilobak dira, eta astero osabaren gutuna jasotzen dute. Txantxibiri abenturak kontatu eta ikasitako jolas berriak bidaltzen dizkie, beraiek eskolako haurrei irakats diezaieten.</p> <p>Programako egun batean Txantxibiri Kamino pertsonaia ikas-tetxean agertuko da haurrekin jolasteko.</p> <p>Programa honetan haurren interesa eta motibazioa handiak izaten dira. Egiten dituzten jolasak gustukoak izateaz gain, astero pertsonaiaren zain egoten dira bere abenturen berri izateko. Gainera, Txantxibiri noiz iritsiko den etengabe galdeztzen dute.</p>
KONTAKTURAKO	<p>Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Elkarte</p> <p>www.urtxintxa.org</p> <p>gipuzkoa@urtxintxa.org</p> <p>Tel: 943 270 033</p>

JOLAS-ORDU ETA JANTOKIEN DINAMIZAZIOA	
HARTZAILEAK	HHko, LHko eta DBHko ikasleak
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa
BITARTEKOAK	Ikastetxe bakoitzaren ordutegi eta beharren arabera dinamizazio-programak diseinatzen dira: euskararen erabilera areagotzeko jolasak, aho-korapiloak, kantuak eta abar. Gainera, eskolako jaien dinamizazioa egin daiteke, txangoetarako begirale-laguntzaile zerbitzua eskaini eta ikastetxean hitzaldiak edo bilerak daudenean haurtzaindegi-zerbitzua eskaini.
DESKRIBAPENA	Programa hauen helburua ikastetxeko aisialdia dinamizatzea da; bai eta haur eta gazteak euskararen erabilera ez-formalean ongi pasatuz trebatzea ere. Hainbat bitarteko erabiltzen da, eta orokorrean komunikazio-beharrak sortu eta horiek euskaraz gara daitezten bideratzen da.
NON BURUTU DEN	Etxebarriako eskolan eta institutuan, eta Leioan.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tel: 946 215 780

ESKOLA-ORDUZ KANPOKO ESKAINTZA	
HARTZAILEAK	Eskolako ikasleak.
KUDEATZAILEAK	Batzorde bat osatu beharko da eskola bakoitzeko errealitatearen arabera. Batzordealk eskola-orduz kanpoko eremua aztertu beharko du, dauden gabeziak eta indarguneak identifikatuz.
BITARTEKOAK	Eremu instituzionalean ikasturtero ikasleen interesetan oinarrituta eskaintza osatzeko erabakia hartu beharko litzateke. Erregistro ezberdinak, hizkera-errepertorio zehatza, hiztegi teknikoa, hitanoaren erabilera, euskalkienak eta abar.
DESKRIBAPENA	Programa honetan eskain daitezkeen aukerak ikasleen interesetan oinarrituak egotea oso garrantzitsua izango litzateke. Gainera, informazio hori balia daiteke DBHko hautazko arloetan eskaintza egiteko. Programan parte hartzen duten begiraleak zeregin pedagogiko zein linguistikorako trebatu behar dira.

	<p>Gazteentzat begiraleak askotan bihurtzen dira erreferente. Erreferenteak duen garrantziaz jabetzeak eta rolek dituzten ikuspuntuak ezagutzeak begiraleek behar duten prestakuntzaren helburu izan behar du. Trebakuntza hori bertakoekin nahiz kanpoko eragileen laguntzarekin egin daiteke. Hala ere, ez da nahikoa hori eskaintzearekin, etengabeko koordinazioa bideratu behar da eta adostu batzordearen esparru horri dagokion jarduera bakoitzak berezko dituen hizkuntza helburuak zein diren, bai eta horien jarraipena eta lanketa nola egin beharko den ere.</p> <p>Era berean, erreferente bihurtzen dugun pertsonaren trebakuntzaz gain, garrantzitsua da beste zenbait alde ere kontuan izatea: talde-dinamiketarako dagoen abilezia, adibidez. Egiaztatuta dago, adibidez, antzerkiaren eskaintza euskarak intentsitate gehiagoz bizitzeko balio duela, uneoro haur eta gazteak protagonistak direlako. Talde txikietako harreman-sareak birmoldatu egiten dira, rolak aldatuz eta parte-hartzaileen bestelako trebeziak azaleratuz. Egoera askotari-koak sor litezke, jolas antzeztutik hasi eta zuzeneko ekitaldira bitarte.</p> <p>Beste ekintza arrakastatsua irratia da. Ekintza horrek emaitza onak ematen ditu ingurune soziolinguistiko erdalduntan. Jarduera hori, gainera, ez da soilik parte-hartzaile direnentzat; aitzitik, adin guztietako haurrek badute euskararentzat beste esparru bat irabazia, eta etxetik ere jarraipena egin baitezakete. Bestalde, eremu kurrikularrean bideratzen den hainbat lan erakusteko beste modu bat da, ahozkotasuna landuz, bide batez.</p>
KONTAKTURAKO	<p>Euskal Herriko IKASTOLAK www.ikastola.net ikastola@ikastola.net Tf: 944 317 883</p>

KIROLA EUSKARAZ	
HARTZAILEAK	DBHko eta DBHoko gazteak.
KUDEATZAILEAK	Debagoieneko Mankomunitatea.
BITARTEKOAK	Hainbat kiroletarako fitxa didaktikoak.
DESKRIBAPENA	<p>Programa honek Debagoiena osatzen duten herrietan kirol-arloan euskararen erabilera areagotzea du helburu. Egitasmoa, bailara osoko Udaletako Euskara eta Kirol zerbitzuek sortutako ekimena da.</p> <p>Ekimenaren bidez haxe da lortu nahi dutena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirol-arloko jendearen (entrenatzaile, monitore, irakasle,...) sentsibilizazioa eta prestakuntza. • Euskarazko kirol-materiala sortzea (bibliografia). • Programa beste herri eta lurralde batzuetara hedatzea. <p>Entrenatzaileei, monitoreei eta kirolariei zuzendutako prestakuntza-ikastaroak ere egiten dituzte.</p>
NON BURUTU DEN	Gaur egun Gipuzkoako lurralde mailan garatzen ari da. Oarsoaldean eta Urola-Kostan badituzte eskola-kirola euskaraz gaineko programak.
KONTAKTURAKO	DEBAGOEINako Mankomunitatea www.debagoiena.com TI: 943 793 389

ESKOLA-KIROLA GIPUZKOAN	
HARTZAILEAK	Eskola-adineko ikasle guztiei zuzendua, LHko 3. mailatik hasita.
KUDEATZAILEAK	Gipuzkoako Foru Aldundia, Udalak, ikastetxeak, kirol-federazioak eta kirol-klubak.
DESKRIBAPENA	<p>Programa honetan hainbat alderdiren garrantzia azpimarratu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaleko Kirol- eta Euskara-zerbitzuen arteko elkarlaren garrantzia: zerbitzu bakoitzak ikastetxeetako pertsonekin lan egitetik denak batera lan egitera pasatzea garrantzitsua da. • Herri-mailako elkarlana, udaletik ikastetxeei laguntzak eskaini eta ikastetxeek eskola-kirolean eragin dezaten inplikatur: ikastetxea bera motorra izatera pasatzea, eskualde bakoitzean eskola-kirolerako inplikatu behar diren beste eragile guztiekin batera lan eginez.

	<ul style="list-style-type: none"> • Kirol-hezitzaileen kirol prestakuntza, hizkuntza-ezagutza eta erabilerarako ohiturak nahiz motibazioak. • Gurasoen artean eskola-kirolaren bidez heziketa egokirako jokabideak bultzatzea eta hizkuntza-sentsibilizazioa lantzea: talde horri begira egin beharreko informazio-, formazio- eta sentsibilizazio-ekintzak ere garrantzitsuak dira. • Kirol-arlorako euskaraz sortua dagoen materialaren erabilera sustatzea: eskola-kirolerako erabilgarria den euskarazko kirol-materialak eragin handia dute haiengan bereziki; eskola-kirolean parte hartzen duten erakunde, klub eta eragile guztien sarearekin eta sarearentzat lan eginez, eskola-kirola euskalduntze-bidea erosoagoa eta eraginkorragoa izango da guztientzat.
NON BURUTU DEN	Eskola-kirolaren kalitatea hobetu eta euskara sustatzeko neurriak oro har zabaldua daude Gipuzkoako eskualdeetan, nahiz eta erritmo eta baliabideen aldetik alde nabarmenak egon baztuen eta besteen artean.
KONTAKTURAKO	Gipuzkoako FORU ALDUNDIA www.kirolaeuskaraz.net Tel: 943 112 394

KIROLEAN ENTRENATZAILE-HEZITZAILEAK ERREFERENTE	
HARTZAILEAK	Kirol-taldeetako gazteak.
KUDEATZAILEAK	TTAKUN Kultur Elkartea.
DESKRIBAPENA	<p>Edozein kiroletan aplikatu liteke proposamena. Helburua gazteen artean erreferenteak duen garrantziaz jabetzea eta rolek dituzten ikuspuntuez jabetzea da.</p> <p>Kirol-taldeetako gazteei beraiek baino gazteago diren kirol desberdinetako haurrekin beste rol batean aritzeko proposamena egingo zaie. Taldekide guztien parte-hartzea eskatuko da, eta ikasturte berean bi edo hiru kontaktu izan daitezke. Egitasmo honi hainbat urtetan zehar jarraipena emango zaio era progresiboan.</p> <p>Gazteak hainbat modutara aritu daitezke: laguntzaile entrenamenduetan eta partidatan, epaile lanetan, haurrekin bat gehiago izanez, azalpen teorikoak emanez eta abar.</p> <p>Egitasmoak ez du mugarik, ondo programatuz gero eta gazteen parte-hartzeari behar den garrantzia emanez gero, oso eraginkorra da. Parte-hartze horrek eskatzen duen ardurak hiz-</p>

	<p>kuntza-erabilera bermatzen du.</p> <p>Gazteek rola bereganatzen dutenean hizkuntzarekiko jarre- ra eta erabilera modu naturalean barneratzen dute. Hizkun- tza-gaitasuna ona ez den kasuetan ere, rol horretan ari- tzeak gazteek duten desioak ahalegina egitera bultzatzen ditu.</p>
KONTAKTURAKO	<p>TTAKUN Kultur Elkartea www.ttakun.com ttakun@ttakun.com Tl: 943 371 448</p>

ADIMEN EMOZIONALA ETA EUSKARA UZTARTZEN

HARTZAILEAK	Andoaingo Aita Larramendi ikastola.
KUDEATZAILEAK	Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuak.
BITARTEKOAK	Guraso Eskola eskaintzan txertatutako "Emozioen eta eus- kararen transmisioa familietan" tailerrak eta <i>Etxean zer iku- si, bura ikasi</i> liburuxka
DESKRIBAPENA	<p>Programaren helburua gurasoek hizkuntza-transmisioari bu- ruz dituzten uste, sinesmen eta portaeren arteko koherentzia lortzea da.</p> <p>Guraso gehienek bat egiten dutela euskararen berreskurapen- nahiarekin eta beren seme-alabak eleaniztunak izatea nahi du- tela hartzen da oinarri. Hala ere, hori lortzeko ez dituzte as- kotan portaerak helburuekiko lerratzen.</p> <p>Portaeretan aldaketak eragiteko asmoz, arreta handiagoa jar- ri zaie alderdi afektiboari eta emozionalari. Horrela, alfabe- tatze emozionalean janzten ari diren gurasoei, hizkuntza- -portaerei erreparatzea proposatu zaie.</p> <p>Hauxe da programan lan egiteko modua:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Guraso gisa duten hizkuntza-ohitura bat hobetzeko es- trategia pentsatu eta liburuxkako ereduari jarraituz kon- promiso pertsonal bat hartzen da. • Etxeko giroa goxatzeko estrategia batzuk praktikatu taldean, eta gero etxean probatu. <p>Gurasoei modu tutorizatuan jarraipena egiten zaie taldearen laguntzarekin.</p>
NON BURUTU DEN	Andoaingo Aita Larramendi ikastolan.
KONTAKTURAKO	<p>Andoaingo LARRAMENDI ikastola www.andoainkastola.net Tl: 943 593 525</p>

GURASO-TXOKOAK	
HARTZAILEAK	HHko eta LHko haurren gurasoak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa.
BITARTEKOAK	Tailerrak: herriko ohitura zaharren ezagutza, euskal dantza eta abestiak, euskaraz jolasteko kantak, haur jolasak eta abar.
DESKRIBAPENA	<p>Programa honen bidez, ikasturtean zehar gurasoekin motibazio-tailerrak egiten dira. Astean behin edo bitan, guraso-taldeak eta begiraleak elkartzen dira eta hizkuntzaren inguruko hainbat gai lantzen dira.</p> <p>Aldiro, gurasoak eta haurrak elkartu eta ekintza bateratuak egin daitezke: jolas-saioak, txangoak eta abar.</p> <p>Programaren helburuak hiru dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gurasoak euskal kulturara hurbiltzea. • Seme-alabekin erabil ditzaketen baliabideak ezagutzea. • Euskara ikasteko eta euskara erabiltzeko gurasoen motibazioa indartzea. <p>Gurasoen parte-hartzea errazteko, hainbat lekutan haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen dute.</p>
NON BURUTU DEN	Hainbat herritako ikastetxeetan, udalarekin elkarlanean.
KONTAKTURAKO	<p>TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa</p> <p>www.topagunea.org</p> <p>bulegoa@topagunea.org</p> <p>Tl: 946 215 780</p>

**4. HERRIAN EUSKARAREN
ERABILERA AREAGOTZEKO
ZENBAIT PROGRAMA**



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Eskolak bizitza ematen dio herriari eta herriak bizitza eskolari. Herri txikietan agerikoa bada ere, hori ez da hain garbi ikusten hiri eta hiriburuetan.

Herriko elkarteek eta eskolak egiten dituzten jardun askok ez dute oso definitutua elkarrengandik bereizten dituen marra. Bi aldeentzat izaten dira baliagarriak eta horregatik komeni da elkarlanean aritzea: kirola, aisia, kultura-saioak, gaztetxokoak, udalekuak eta abar.

Azterketek erakutsi dutenez, Euskal Herriko gaztetxo euskaldunen euskararen erabilera ikasgelari lotzen zaio, batez ere. Bestalde, D eredukoek hitz egiten dute ikasgelan euskaraz, gehienbat. Dena den, ikasgelatik urruntzen diren heinean, euskararen erabilerak beherantz egiten du.

Eskolari gizarte-eragileekin askotariko egitasmoak partekatzea eta jendartean euskararentzat espazioak irabaztea dagokio. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten kideentzat arnaguneak eratzeko lanak eskolaren ingurunea kontuan izan behar du.

Xede hori egiterakoan hiru gauza hartu beharko lirateke kontuan:

- Leku bakoitzean euskararen belaunez belaur transmisio sendoena berma dezaketen ekimenak eta proposamenak aukeratu eta lehenetsi.
- Ekimenak lehenesteko unean, egingarrietatik hasi.
- Erdal mundua ere, modu batera edo bestera, euskalgintzaren gurpilera hurbiltzen saiatu.

Berezko ibilbidea eta ibilbide kulturala uztartu behar ditugu jendeari hizkuntzaren arlo ez-formala eta formalaren ezagutza ziurtatzeko. Hori gabe oso zaila da hizkuntza-trebeziak edo automatismoak, euskaraz hitz egiteko ohitura eta abar lortzea.

GAZTETXOEKIN EGITEN DIREN JARDUERAK

Orokorrean, hiru arloetan eragiteko erabiltzen dira jarduerak: motibazioa sustatzeko, ezagutza errefortzatzeko eta erabileran eragiteko.

Horrelakoetan erabiltzen den metodologia gozamenarekin eta askatasunarekin lotzen da, euskara erabilgarria eta erakargarria egin nahian. Horrela sailka litezke:

- Udalekuak eta egonaldiak
- Kultura-ekintzak eta ikuskizunak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Ikastorduz kanpoko ekintzak
- Ekipamenduak
- Formazioa
- Hedabideak
- Lehiaketak
- Irakurketa, idazmena eta ahoskera lantzekoak
- Bereziak: Kuadrillategi, asteburueta.com, hizkuntzarekin jolasean, eta abar.

ERABILERAN ERAGIN DEZAKETEN PROGRAMAK

MOTIBAZIO-SAIOAK

Hizkuntzen inguruko eta bereziki euskararen inguruko hausnarketa egitea bilatzen da.

Horrekin batera, inplikazioa ere lantzen da. Gazteak euskararen normalizazioan zer egin dezaketen aztertu eta beraien ingurune sozialean kokatuz, euskaraz egiten diren jardueren

tan hartzaileak izateaz gain, eragile ere izan behar dute: eskolako euskara taldean, herriko euskara elkarteetan, euskarazko aldizkarian, irratian, telebistan edota sor litezkeen beste hainbat jardueratan.

HEZITZAILEEN ERAGINA

Kirol-prestatzaileek, aisialdiko begiraleek, gaztekuetako hezitzaileek, antzerkiko irakasleek... asko egin lezakete euskararen erabilera areagotzeko.

- Hezitzaileak jokatzen duen paperaren arabera.
- Hezitzailearen kokapenaren arabera erabileran eragiteko.
- Motibazioak: jarduerarekiko motibazioak instrumentalak, komunikatiboak eta integratzaileak izan daitezke. Hiru motibazio horiek aztertuz jardueraren intentsitatea balaratu ahal izango da, motibazioaren indarrak adierazten baitu jardueraren intentsitatea.
- Hezitzaileak, askotan, erreferente bizi batez baliatzea komeni da, gustukoa duten pertsonaia ekarriz beraiekin euskaraz hitz egin dezan: aktorea, herriko bitxikerien kontalaria, interesa duten gai bati buruzko espezialista, eta abar.

KIROL-PRESTATZAILEAK

Kirolak adin horretan izugarritzko eragina duenez, prestatzaileak erabiliko duen hizkuntzak zeresan handia du.

Normalean hizkuntza-erabilera erreferentearen onarpen-mailarekin bat etortzen da.

Kirol-taldeetako kide euskaldunei, beraiek baino gazteago diren kirol berdineko hurrekin eta gaztetxoekin beste rol batean aritzeko aukera eskaini behar zaie, euskararen erabilerak bete behar duen rola erdigunean jarriz.

AISIALDIA

Helburua gazteei antzeko interesak dituzten beste gazteekin biltzeko eta egoteko parada eskainiko dion tokia eskaintzea da.

Hezte-prozesuan, familiaz gain, hedabideek, Internetek, modak, kanteak, pertsonaia publikoek, agintarien ereduak, kontsumismoak eta abarrek eragin handia dute. Horren ondorioz, heziketa-kontzeptua bi norabidetan zabaldu da. Batetik, modu bertikalean; hain zuzen ere, jendeak bere bizitza osoan hezi behar duela pentsatzera iritsi gara; bestetik, modu horizontalean, alegia, ohartu gara eskolak, auzoak, familiaak eta fedeak ez direla heziketa-ardura duten bakarrak.

SORMEN-GUNEAK

Zaletasun, irrika edota gustu antzekoa duten ikasleak edo taldeak elkarlanean aritzeko eta hura euskaraz garatzeko aukera eskaini behar da. Euskara eta kultura (musika, antzerkia, irratigintza, informatika, dantza, argazkigintza, poesia, bertsoa, plastika, kirola diseinua eta abar) modu erakargarrian lotuko dituzten proiektu sortzaileak sustatu behar dira.

Gainera, herrian euskararen erabilera areagotze aldera ondorengo orrietan bildu ditugun programetan beste esparru hauek ere kontuan izan ditugu, haur eta gazteen hizkuntza-jarreretan eta hizkuntza-jokabideetan zeresan handia dutelakoan: gurasoek duten hizkuntzekiko konpromisoa eta sentsibilizazio aldetik; etorri berriak; eskola-orduz kanpoko ekintzak izan daitezkeen udalekuak, kanpaldiak, negulekuak, ludotekak, gaztetxokoak, jaialdiak eta abar; begiraleen prestakuntza; gazte-taldeak; gazteen inplikazio zubiak; sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak eta IKTak, besteak beste.

ZABU ZIBU	
HARTZAILEAK	0-3 urte eta 3-6 urte bitarteko haurrak eta haien familiak.
KUDEATZAILEAK	Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Eskola.
BALIABIDEAK	Nagusienak jolasa, kalea, euskara eta familiak dira.
DESKRIBAPENA	Programa honen bidez familiek, jolasaren bidez, kalean euskaraz egin dezaten lortu nahi da. Helburu nagusia familiak euskararen inguruan biltzeko gunea sortzea eta familia-tipologia-ka beharren arabera egitasmoak eskaintzea eta bideratzea da. Dinamizatzaile batek euskarazko jolas eta abestiak antolatzen ditu bertaratzen diren guraso eta haurrentzat. Horretarako, jolasera hurbiltzen den haurrari gurasoak ekartzeko eskatzen zaio. Gurasoek haurrekin euskaraz jolasteko “laguntzaile” bat izango dute, beraz.
NON BURUTU DEN	Pasaian. Arrasaten Guraso Lagun egitasmoaren barruan, haurrekin euskaraz egiteko proiektua garatu dute.
KONTAKTURAKO	Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Elkartea www.urtxintxa.org gipuzkoa@urtxintxa.org Tl: 943 270 033

GURASOENTZAKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINA	
HARTZAILEAK	0-6 urteko haurren gurasoak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa.
BALIABIDEAK	Gutuna edo esku-orria.
DESKRIBAPENA	Programaren helburua haurraren garapen-prozesuan hizkuntzaren garapenez sentsibilizatzea eta gurasoek euskaraz ikasteko dituzten aukerez informatzea da. Gurasoei gutuna bidaliko zaie. Gutun horretan nahi beste informazio eman daiteke: Euskara-elkarteen aurkezpena egin liteke eta haur zein gurasoentzat dituen jardueren informazioa eman daiteke, esaterako, zainketa-zerbitzua, txikien ludoteka, guraso-txokoak eta abar. Ikasteredu euskalduna duten ikastetxei buruzko informazioa ere eman daiteke, eta haurrak D ereduaren matrikulatzea animatu.
NON BURUTU DEN	Hainbat herritan, euskara-taldeek bultzatuta.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

GURASO LAGUN: GURASOEK EUSKARAZ HITZ EGITEKO KONPROMISOA	
HARTZAILEAK	Guraso euskaldun zahar eta euskaldun berriak.
KUDEATZAILEAK	AED, Arrasateko AEK, Udal Euskaltegia eta Zahar Berri egitasmoa.
DESKRIBAPENA	Gurasoen euskararen ezagutzan eta erabileran eragin nahi da. Izan ere, gurasoek euskaraz hitz egiteko ohitura hartuz gero, horrek eragina izango du seme-alabengan, gurasoak direlako seme-alaben eredu. Hortaz, gurasoak euskaraz ikasteak eta aritzeak lagundu egingo du euskara familia arteko eta lagunen arteko harremanetan erabiltzen. Gurasoak haurrekin batera elkartzan dira gune zehatz batzuetan: plazetan, parkean, ludotekan eta abar. Guraso lagun egitasmoa gurasoen beharretara egokitzea da, horrela mintza-praktika taldeak ahalbidetuz eta gurasoen arteko harreman-sare euskaldunak sortuz, euskaldun berri eta zaharrak direnak elkartuz. Astean ordubeteko saioak izaten dira, eta denbora horretan seme-alabak gertu baina zainduta izango dituzte, horretarako begiraleak egitasmoak berak jartzen dituelarik.
NON BURUTU DEN	Arrasaten, Getxon eta Gorrizen, besteak beste.
KONTAKTURAKO	AED Arrasate Euskaldun Dezagun www.topagunea.org, www.goiena.com aed@topagunea.com Tl: 943 771 228 Tl: 943 771 228

SENTSIBILIZAZIO- ETA INFORMAZIO-PROGRAMA	
HARTZAILEAK	5-11 urteko haurrak; 12-16 urteko gaztetxoak; gurasoak; herri eta elkarteetako eragileak; aisialdi-taldeak eta haur eta gazte-ekipamenduak, Euskara Elkarteak, Ikastetxeak (eskola-orduz kanpoko jardueretan), aisialdi-programak antolatzen dituzten beste elkarteak (kirol-taldeak, etorkin-elkarteak eta abar); instituzioak: udalak, mankomunitateak eta abar.
KUDEATZAILEAK	Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA
DESKRIBAPENA	Programa honen xede nagusia haur eta gazteentzat prestatutako programen berri eman eta programa hauetara haur zein gazteak bideratzea da. Beste helburu hauek ere baditu: <ul style="list-style-type: none"> • Herritar guztiak kulturarteko aisialdiko onurez jabetzeko informazioa ematea. • Ikasle etorkinen gurasoei programa honen berri zehatza eman eta matrikulatzeko erraztasunak eskaintzea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Etorquinek euskara beharrezkotzat hartu eta euskararen beharra ikustea. • Euskara ikasteko hartzaileei egokituta eta modu erakar-garrian eskaintzen duen metodologia zabaltzea.
KONTAKTURAKO	Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA www.kontseilua.org Tel: 943 591 200

HEZITZAILEAK ASKO EGIN DEZAKE	
HARTZAILEAK	Eskola-orduz kanpoko askotariko jardueretako partaideak: kirol-entrenatzaileak, aisia-begiraleak, antzerki-irakasleak, gaztelekuetako hezitzaileak eta abar.
KUDEATZAILEAK	TTAKUN Kultur Elkartea.
BITARTEKOAK	Hezitzailea taldearekiko kokatzeko estrategiak, eragiteko teknikak, gazteentzako erreferente biziak.
DESKRIBAPENA	<p>Erabileran eragin nahi bada, gazteei ohituretan aldaketa bat eskatzen zaie. Hortaz, desoreka sortu nahi da taldearen ohituretan. Desoreka hori sortu ahal izateko, gazteek jarduerarekiko dituzten motibazioak eta jardueraren intentsitatea oso kontuan izan beharko ditugu. Jarduerarekiko motibazioak instrumentalak, komunikatiboak eta integratzaileak izan daitezke, eta hiru motibazio horiek aztertuz jardueraren intentsitatea balaratu ahal izango da, motibazioen indarrak adierazten baitu jardueraren intentsitatea.</p> <p>Erabileraren aldetik gazteei eskatzen zaien ahalegina handia bada, hau da, ohituretan sortu nahi den desoreka handia bada, jardueraren intentsitateak handia izan beharko du, eta behar den kasuetan, motibazioetan eraginez intentsitatea indartu beharko da.</p> <p>Sortu nahi den desoreka horretarako intentsitateari dagokion baldintza betetzen ez bada, oso zaila izango da helburua lortzea. Hizkuntzarekin lotura zuzena ez duten faktoreak izan arren, hizkuntzazko helburuak landu ahal izateko oso ondo aztertu eta landu behar dira jarduerarekiko motibazioak eta jardueraren intentsitatea.</p> <p>Programa honetan, hizkuntza-errealitateetik abiatuta helburuak zehazteko modua eta erabileran eragin ahal izateko estrategiak eta tresnak zehazteko proposamena jasotzen da.</p> <p>Programak jasotzen dituen estrategia eta tresnak erabiliko dira taldeari jarritako helburua lortzeko.</p> <p>Helburuak eta erabil daitezkeen estrategiak erabakitzeko, hasierako errealitatearen azterketa egin behar da komunikatzeko</p>

	gaitasuna eta euskara erabiltzeko inizatiba kontuan hartuz. Horrekin, taldea erabilera-urrats batean kokatuko dugu. Ondoren ikusi ahal izango da zeintzuk diren talde horri jar da-kizkiokkeen helburuak.
NON BURUTU DEN	Lasarte-Orian, esaterako.
KONTAKTURAKO	TTAKUN Kultur Elkarte www.ttakun.com ttakun@ttakun.com Tl: 943 371 448

KUADRILLATEGI

HARTZAILEAK	14 urteko gaztetxoak, DBH 3. mailako ikasleak.
KUDEATZAILEAK	Tokian tokiko Euskara Zerbitzua, Euskara Elkarte eta bes-tetik Kuadrillategi Ikerketa eta Aholkularitza-zentroa.
BITARTEKOAK	Kulturako tailerrak: astean 4 orduz eta herrian bertan. Oporraldiko jarduera ludikoak: herrien artean.
DESKRIBAPENA	<p>Koadrilletako kideen arteko hartu-emanak hobetzen direla-koan, taldeak makina bat arau adostu eta ezartzen ditu. Ildo horretan, talde guztiek arautzen dute nolakoa behar duen izan bere baitan kideen arteko hizkuntzazko jokaerak; hau da, tal-deak arautuko du jakinaren gainean, edo oharkabean, tal-dearen baitan kideek elkarrekin euskaraz ala erdaraz egin-goo duten. Maiz, ordea, ez da arrazoirik izaten eta ekinaren poderioz ohitura bihurtzen da erdaraz hitz egitea. Gero, tal-deari zaila gertatzen zaio ohitura bihurtu den hizkuntzazko jokaerari aurre egitea.</p> <p>Programaren helburu nagusia da, beraz, lagunarte edo koad-rilak hizkuntza-jokaera euskararen aldera iraultzea, euska-raz bizitzea, alegia.</p> <p>Koadrilek hiru baldintza bete behar dituzte, ezinbestez, pro-graman parte hartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasketak B edo D ereduari egitea. • Gutxienez koadrilako 5 lagunek izena ematea. • Egitasmoko jardueretan euskaraz hitz egiteko kon-promisoa hartzea. <p>Parte-hartzaileei argi azaltzen zaie Kuadrillategik eskaintzen dien aisialdiaren truke elkarrekin euskara hutsez egin beharko dutela egitasmoko orduetan.</p> <p>Aldi berean hiru dira, batik bat, eskaintzen zaizkien gauzak: biltzeko gune fisiko bat, jende berria ezagutzeko aukera eta gauza berriak egiteko aukera.</p> <p>Egitasmoak bi urteko iraupena du.</p>

NON BURUTU DEN	Dagoeneko hainbat herritan garatu da programa: Lasarte-Orian, Andoainen, Urnietan, Beasainen, Deban, Bergaran, Aretxabaletan, Atarrabian, Uharten eta Burlatan, esaterako.
KONTAKTURAKO	TTAKUN Kultur Elkartea www.ttakun.com ttakun@ttakun.com Tl: 943 371 448

GAZTE-TALDEAK	
HARTZAILEAK	14-30 urte bitarteko nerabe eta gazteak
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarteen Federazioa.
BITARTEKOAK	Ikastolako euskara-taldea, elkarteko begirale-taldea, Kuadrillategi proiektua, elkarteko antzerki-taldea
DESKRIBAPENA	<p>Programa hau aurrez definitu gabeko inplikazio-bidea da. Gazte-taldeak testuinguruaren arabera eta beste hainbat arrazoi direla medio sortzen dira. Euskara-elkarteen eginkizuna gazteak horrelako taldeetara bideratzea da, gazte-taldea aintzat hartzea eta antolatu nahi dituen ekimenak aurrera eramaten laguntzea. Gazte-taldeak, partaideen adinaren eta izaeraren arabera, zenbaitetan bakarrik arituko dira eta beste hainbaitetan begirale baten gidaritzapean arituko dira.</p> <p>Programaren helburuak hauexek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gazteen arteko komunikazioa euskaraz eman dadin hizkuntza-ohituren gaineko kontzientzia hartzea • Herri-mailan euskararen erabileran eragiteko ekimeneetan parte hartzea <p>Horretarako, gazte-talde naturalak identifikatu behar dira eta elkartea aurkeztu behar zaie. Ondoren, gazte-taldearekin elkarlanean aritu behar da gazte-taldearen zein elkarteko intereserako jarduerak antolatuz.</p>
NON BURUTU DEN	Hainbat herritan burutzen ari dira gisa honetako programak: Arrasaten, Lasarte-Orian eta abar.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarteen Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

GAZTEEN INPLIKAZIORAKO ZUBIAK	
HARTZAILEAK	16 urtetik gorako gaztetxoak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa.
DESKRIBAPENA	<p>Euskara Elkarteek sarritan behar izaten ditu lan jakinak egiteko adituak diren laguntzaileak. Halakoetan, urrunegi joan gabe, gazteei begira diezaieke elkarteak.</p> <p>Gazteek aldeko jarrera izaten dute lan zehatzetarako laguntza eskatzen zaienean. Gazteak bere trebezia eta gaitasunak kontuan hartzen direla sumatzen duenean, orokorrean, poza hartuko du eta benetako konpromisoa hartzeko motibazioa sentituko du.</p> <p>Lantxoak iraupen eta izaera askotarikoak izan daitezke: elkarteko web orriaren diseinua, ekintzaren bat bideoz grabatzea, aldizkarian laguntzea, Kilometroak, Euskal Herria Zuzenean, Nafarroa Oinez eta gisa horretako jaialdi erraldoietan laguntza ematea eta abar.</p> <p>Programak helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gazteak Euskara Elkartera hurbiltzea. • Euskararen normalizaziorako gazteen parte-hartzea areagotzea. • Gazteak gustuko dituzten jardueretan trebatzea.
NON BURUTU DEN	Hainbat herritan Euskara Elkarteak bultzaturik: Arrasaten, Lasarte-Orian eta abar.
KONTAKTURAKO	<p>TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa</p> <p>www.topagunea.org</p> <p>bulegoa@topagunea.org</p> <p>Tl: 946 215 780</p>

IRAKUTREZIN	
HARTZAILEAK	Herriko gazteak.
KUDEATZAILEAK	Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzua, herriko ikastetxeak eta TTAKUN Kultur Elkartea.
BITARTEKOAK	Gazteentzat eta gazteek egindako <i>Irakutrezin</i> aldizkaria.
DESKRIBAPENA	<p>Programa <i>Hezitzaileek Asko Egin Dezakete</i> metodologiaren bigarren urratsa da. Programa honetan, taldekideen arteko hizkuntza-erabileran eragin nahi da, eta dinamizatzailea pixkanaka desagertzea lortzen da.</p> <p>Gazteentzat eta gazteek egindako <i>Irakutrezin</i> aldizkaria izan da edozein taldetan hizkuntza-erabileran eragiteko baliatu den metodologia. Metodologia berri horrek taldean eta li-</p>

	<p>dergoan du oinarri. Eraldatze-prozesua proposatzen da, mar-txan dagoen edo propio horretarako sor daitekeen jarduera baten bidez. Taldeari ezaugarri jakinak izango dituen erronka proposatzen zaio, eta liderren laguntzaz, aurrera atera behar dute.</p> <p>Aldizkaria herriko gazte-talde batek egiten du, hamar bat lagun aritzen dira erredakzio-taldean lanean, eta astelehene-tan egiten dituzten bileretan TTAKUNeko bi dinamizatzaileen laguntza izaten dute.</p> <p>Ikasturtero lau ale ateratzen dituzte, eta herriko ikastetxee-kin elkarlanean osatzen dituzte aldizkariko orriak. Ondoren, aldizkaria ikastetxe guztietan banatzen da.</p> <p>Proiektuaren oinarria <i>kutremaileak</i> dira, goitizenez sinatzen duten gazteak, alegia. Kolaboratzaileak ere badituzte, haien lana ezinbestekoa baitzaie.</p> <p>Orain aldizkariak 40 orri ditu, eta eskolaz kanpo egiten dute lan. Lan guztia haien esku dago; gaiak aukerazetik hasi eta maketazioraino.</p>
NON BURUTU DEN	Lasarte-Orian.
KONTAKTURAKO	TTAKUN Kultur Elkartea www.ttakun.com ttakun@ttakun.com Tl: 943 371 448

LUDETEKA eta JOLASTXOKO PROIEKTUA	
HARTZAILEAK	3-12 urte bitarteko herriko haurrak. Ludoteka proiektuan, zenbaitetan, gurasoen parte-hartzea ere onartu eta bilatzen da.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa.
BITARTEKOAK	Hainbat programa egiten dira: jolas librea, tailerrak, ekintza bereziak (jaialdiak, txangoak, ikuskizunak, txapelketak eta abar). Gainera, hainbat zerbitzu osagarri eskaini daitezke: haurren informazio-gunea, gurasoen informazio gunea, ikastetxe eta Udalarekin harremanak eta abar. Jostailuak motaren eta adinaren arabera sailkatu daude: jolas sinbolikoa, mahai-jolasak, ariketa-jolasak, eraikuntzak eta abar.
DESKRIBAPENA	Proiektu honen helburua haurarentzat jolaserako denbora eta espazioa berreskuratzea da. Halaber, haur guztiei jolasgaiak eskuratzeko aukera eskaini nahi zaite.

	Hizkuntzaren eredu ez-formalaren transmisioa bideratu nahi da; hala, hezkuntza ez-formalaren bidez haurrari garapen pertsonalean eta sozialean lagunduz.
NON BURUTU DEN	Udalerri askotan garatu dira gisa honetako egitasmoak, gehienak herriko euskara taldeak antolatutak.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

LUDOTEKA IBILTARIA	
HARTZAILEAK	3- 12 urte bitarteko haurrak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa.
BITARTEKOAK	Ludoteka programaren antzekoak.
DESKRIBAPENA	Ludoteka ez dagoen herri edo auzoetan gara liteke programa. Eguraldi ona dagoenean, kalean gara badaiteke ere, ezinbestekoa da lokal bat izatea ere eguraldiak laguntzen ez duenerako. Jostailu mordoska bildu eta auzoz auzo ibiliko da ludoteka-zerbitzua bertaratzen diren haurrei jolasgaiak eta ongi pasatzeko baliabideak eskainiz. Programa honen bidez, giro ludikoan euskara ez-formalaren transmisioa bideratuko da haurrekin eta harremanak landuko dira haien gurasoekin. Gainera, euskara elkarteak ezagutzera eman eta haren jardunaz informatzeko bitarteko ego-kia da.
NON BURUTU DEN	Hainbat herritan euskara elkarteak sustatuta.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

ESKOLA-ORDUZ KANPOKO EKINTZAK	
HARTZAILEAK	3 urtetik 30 urte bitarteko haur eta gazteak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioko Gazte Saila.
BITARTEKOAK	Tailer eta ikastaroak: graffiti-ikastaroa, buzingintza, jostailu mekanikoen sorkuntza, euskal kantak, antzerkia, irratigintza, bertso-eskola eta abar. Gainera, larunbatetako eskaintzak eta asteburuetakoa tailerrak.
DESKRIBAPENA	Programen helburuak hauexek dira: <ul style="list-style-type: none"> • Eskola-orduetatik kanpo haur eta gazteek gustuko dituzten gaietan euskaraz formatzeko aukera ematea • Eskola-orduz kanpoko esparruan euskararen erabilera sustatzea • Gustuko gaietan trebatuz, hizkuntza-eredu ez-formalaren transmisioa egitea Tailerren edukiak anitzak izan daitezke, herriko beharren, hartzaileen gustuen eta elkarteak dituen baliabideen arabera definituko dira, batik bat. Egokiena jarduerak urte osoko iraupena izatea litzateke; hala, begiraleak denbora gehiago izango du haur- eta gazte-taldean eragiteko.
NON BURUTU DEN	Herri askotan jarduera anitz egiten dira: Aiaran, Getxon, Gorkizen, Leioan eta Santurtzin, adibidez.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

GAZTETXOKO / GAZTELEKU PROIEKTUA	
HARTZAILEAK	12 urtetik gorako herriko nerabeentzat eta gazteentzat. Zenbait Gazteleku proiektutan gurasoen parte-hartzea ere onartu eta bilatzen da.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa.
BITARTEKOAK	Gazteentzako baliabide ludikoak jasotzen ditu eta jarduera bereziak ere antola daitezke bertan: irteerak, tailerrak eta abar.
DESKRIBAPENA	Proiektuak gazteen aisialdia antolatu eta beraien heziketan eragitea du helburu. Gazteek eta gazte-taldeek askatasunez aukeratzen dute Gaztetxokoa erabiliko duten ala ez, parte-hartzea askea delako. Ezaugarri hori esanguratsua da motibazioan sustraituta dagoelako.

	<p>Gaztelekuaren dinamikan, gazteen sormenari, autoantolaketari eta inplikazioa lantzeari bide emango zaie.</p> <p>Hezkuntza modu ez-formalaren bidez, gazteari garapen pertsonal eta sozialean lagundu nahi zaio: arauen kudeaketa, gaztzen ebazpena, sexualitatea, autonomia eta abar. Gainera, hezkuntza ez-formalaren esparruan hizkuntza-eredu euskalduna ziurtatu nahi da.</p> <p>Proiektuak gazteenganako hurbiltasuna ahalbidetzen duen neurrian, hizkuntza-ohituran eragiteko aukera dakar, gazteek euskararekiko izan dezaketen jarreran eta ezagutza-mailan esku hartzeko aukera, alegia.</p> <p>Bestalde, gazteek euskararekiko motibazioa piztu edo indartzeko estrategiak landuko dituzte.</p>
NON BURUTU DEN	Udaleri askotan garatu dira gisa honetako egitasmoak, gehienak herriko euskara taldeak antolatutako: Usurbilen, esaterako.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

UDALEKU IREKIAK

HARTZAILEAK	3-12 urteko haur eta nerabeak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa.
DESKRIBAPENA	<p>Udalekuen bidez, oporraldian ere euskararen presentzia ziurtatzen da. Hau da, hurrengo ikasturtea hasi bitartean, ondo pasatuz, euskaraz hitz egiteko aukera ematen zaie haurrei eta gazteei. Aldi berean, harreman-sarea euskalduntzeko aukera dute ere, udalekuetan egingo dituzten lagun berriei esker. Halaber, hizkuntza-baliabide berriak eman nahi zaizkie.</p> <p>Txikienekin egun erdiko jarduerak egiten dira. Sei urtetik gorako haurrekin programazio-aukera zabalagoa dago: egun osoko txangoak, aterpetxera gaua pasatzera irteera, jolas gehiago eta abar.</p>
NON BURUTU DEN	Udaleri askotan garatu dira gisa honetako egitasmoak, gehienak herriko euskara taldeek antolatutakoak.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

UDALEKUAK edo KANPALDIAK	
HARTZAILEAK	9-18 urteko nerabeak eta gazteak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa.
BITARTEKOAK	Bertso-udalekuak, udaleku ibiltariak, auzolandegiak, koadrilen udalekuak eta barnetegiak.
DESKRIBAPENA	<p>Aste bat, bi edo hiru iraun dezaketen egonaldiak dira, eta heririk kanpo egiten dira. Badira kanpaleku ibiltari edo mugikorrek. Azken horiek, kokagune askotan gauzatzen diren egonaldiak dira, eta kokagune batetik bestera joateko modua ibiltaria edo garraio bidezkoa izan daiteke.</p> <p>Udalekuan parte hartzen duen taldea elkarrekin bizi da egun osoz. Ondorioz, gehienetan, harreman estua eta esanguratsua izaten da eta, ongi pasatuz, gazteek euskaraz mintzatzeko behar duten motibazioan eragiteko aukera paregabea da. Gainera, hizkuntza-baliabideak ematen zaizkie eta autoantolaketan hezten dira.</p>
NON BURUTU DEN	Udalerrri askotan garatu dira gisa honetako egitasmoak, gehienak herriko euskara taldeek antolatuak.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

NEGULEKUAK	
HARTZAILEAK	3-30 urte bitarteko haur zein gazteak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa.
BITARTEKOAK	<p>Txangoak, mendira eta eskiatzera irteerak, Gabonetako Haur Parkea, Jolas Parkea eta abar.</p> <p>Gainera, GAUEKOAK izeneko eskaintzan, neguan eta asteburuetan gaueko 10:00etatik 12:00ak bitartean gazteei zuzendutako tailer eta ikastaroak.</p>
DESKRIBAPENA	<p>Udako oporraldietan gertatzen den bezala, neguko oporraldian ere haur eta gaztetxoan aisiarako denbora handitu egiten da. Hortaz, azken urteotan garai horri begirako eskaintza zabaltzen ari da.</p> <p>Programak honako helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Neguko oporraldian aisia euskaraz izan dadin aukerak zabaltzea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Giro euskaldunean ongi pasatuz, hizkuntzaren eredu ez-formalean trebatzea.
NON BURUTU DEN	Hainbat herritan euskara elkarteek bultzaturik: Usurbilen, adibidez.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

JAIALDIAK

HARTZAILEAK	Herriko gazteak, haurrak eta haien gurasoak
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa.
BITARTEKOAK	Haurrentzako tailerrak, kale-jolasak, olinpiadak, ikuskizunak, txapelketak, mendi-irteerak, bizikleta-ibilaldiak, tonbola eta abar. Jai pribatuen dinamizazioa egin liteke: haurren urtebetetze-festak, jaunartzeak, bazkari erraldoiak, ezkontzak, haur-taldeak dinamizatzeko begirale-zerbitzuak eta abar.
DESKRIBAPENA	Programaren bidez, herriko jaietan, Olentzero-egunean, Inauterietan, KORRIKAn, etab. haur eta gazteentzako ekintzak antolatzen dira. Programaren helburuak hauexek dira: <ul style="list-style-type: none"> • Jaietako programa izaera euskalduna duten ekintzeekin osatzea. • Elkartearen ezagutzera ematea. • Elkartearen autofinantzazioa.
NON BURUTU DEN	Lemoizen, eta beste hainbat herritan euskara elkarteak sustaturik.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tl: 946 215 780

BEGIRALE-IKASTAROAK	
HARTZAILEAK	18 urte beteta dituzten gazteak.
KUDEATZAILEAK	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa.
ERABILERAK	Begirale-poltsa: lanean aritu nahi duten gazteekin lan-poltsa sor liteke elkarteko eta elkartetik antolatzen eta koordinatzen diren aisiako jardueretarako: udalekuak, ludoteka, haur-tzaindegi-zerbitzua, jangela-dinamizazioa, jaialdiak, eskola-orduz kanpoko ekintzak eta abar.
DESKRIBAPENA	Euskara elkarteentzat eta bestelako eragileentzat garrantzia du tituludun begirale-taldea izateak. Programa honen bidez bi aukera eman dakizkieke gazteei: alde batetik, gazteari begirale-eskolen inguruko informazioa eman dakioke; eta, beste aldetik, ikastaroa herrira edo bailarara ekar liteke. Begirale-eskola ugari daude Euskal Herrian, baina gehienek programa eta formatu bera eskaintzen dute: ikasturte bateko iraupena duen asteburuetako programa. Halaber, badira era trinkoagoan eskaintzen dituzten eskolak ere.
NON BURUTU DEN	Hainbat herritan euskara elkarteek bultzaturik: Gorlizen, esaterako.
KONTAKTURAKO	TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa www.topagunea.org bulegoa@topagunea.org Tel: 946 215 780

AISIALDI BIRTUALA	
HARTZAILEAK	Jolas bakoitzak adin-egokitasuna du. Denbora kontrolatzea komenigarria da.
KUDEATZAILEAK	TXATXILIPURDI Elkartea.
BITARTEKOAK	Talde-jolas digitalak, Kamara gure kasa, Euskal-sarean barrena, Picasso digitalak, Ziber-margolaria, bideo-jolasen txapelketak.
DESKRIBAPENA	Ekintzen arabera, hauexek dira lortu nahi diren helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Bitarteko digitalak eta sorkuntzaren arteko lotura egitea • Esparru digitalarekin lotutako euskararen esamolde berriak ezagutzera ematea • Ondo pasatuz, haur eta gazteen motibazio-maila handitzea

	<ul style="list-style-type: none"> • Euskarazko webguneak ezagutzera ematea • Sarean euskaraz nabigatzeko aukera praktikatzea
KONTAKTURAKO	TXATXILIPURDI Elkarte www.txatxilipurdi.com idazkaritza@txatxilipurdi.com Tl: 943 795 448

JIRA BIRA	
HARTZAILEAK	5-11 urte bitarteko haurrei zuzendua. Aniztasuna lantzeko jatorri desberdinetako haurrek parte hartzea interesgarria da: Euskal Herrian jaio diren haurrak eta bertan bizi direnak, Euskal Herriatik kanpo jaiotako gurasoak izan eta Euskal Herrian bizi diren haurrak, eta Euskal Herriatik kanpo jaio eta bertan bizi diren haurrak.
KUDEATZAILEAK	Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA.
BITARTEKOAK	Jolasak, tailerrak eta ipuinak.
DESKRIBAPENA	<p>Programan egingo diren jardueren lokarri gisa pertsonaia nagusi bat erabiltzen da eta haurrek beren buruak identifikatzeko izaera izango duten bost laguntzaile izango ditu.</p> <p>Ekintza guztiak pertsonai horiek bizitako esperientzia eta abenturetan oinarrituak izango dira: munduan zehar bidaiatzen bizi dira, leku desberdinetako jolasak eta ohiturak ikasiz.</p> <p>Lehen saiotik azalduko zaie haurrei pertsonaia horien nondik norakoak, eta hortik abiatuta, saio bakoitzean erabiliko diren interesguneak munduko herrialde desberdinetan gertatutakoak izango dira. Saio horietan euskara ikasteko hainbat gai ikusteaz gain, jendarte desberdinetako arloak jorratuko dira hainbat teknika erabiliz.</p> <p>Programaren hainbat unetan irudizko pertsonaia horiek egiazko bihurtuko dira. Horretarako zenbait jarduera osagarri proposatzen dira: antzerkia, txotxongiloa, ipuinak, komikiak, aldizkariak eta abar.</p>
KONTAKTURAKO	Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA www.kontseilua.org Tl: 943 591 200

BIRA JIRA	
HARTZAILEAK	Hego Euskal Herrian bizi eta euskara menperatzen ez duten 12-16 urte bitarteko gazte etorkin zein bertakoei zuzendua.
KUDEATZAILEAK	Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA.
BITARTEKOAK	Tailerrak. Gainera, hainbat teknika erabiliko dira: debateak, hitzaldiak, adituekin solasaldiak, bideoak, rol playing-a, irteerak, bisitak, topaketak eta abar.
DESKRIBAPENA	Programa honetan egingo diren jardueren lokarriak interesgune desberdinak dira eta horiek dagozkien tailerretan landuko dira. Beti ere, hainbat alde kontuan hartuta, gazteak saioetara gustura etorriko direla ziurtatuko duten interesguneak proposatuko dira. Gertu eta gustuko dituzten gaiak landuko dira. Prestatutako interesgune batzuk haexuek dira: musika, graffitiak, komikiak, telebista, zinea, kirola, dantza, moda eta estereotipoak.
KONTAKTURAKO	Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA www.kontseilua.org Tl: 943 591 200

ETORKINEKIN LAN EGITEKO FORMAZIO PROGRAMA	
HARTZAILEAK	Aisialdian haur eta gazte etorkinekin lan egingo duten hezitzaileei zuzendua. Era berean, gazte etorkinei ere zuzentzen zaie, izan ere, aisialdiko formazio-ikastaro laburen eskaintza ere badago.
KUDEATZAILEAK	Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA.
BITARTEKOAK	Ikastaro honetarako bereziki prestaturiko esku-liburua. Bertan, jolasen fitxak, bitarteko metodologikoak, oinarrizko hiztegia, balizko irteera eta ekintzak, aisialdiko esperientzia eta abar jaso dira.
DESKRIBAPENA	Programa honetan haur eta gazte etorkinekin aisialdian lan egiteko formazio-ikastaro bat eskaintzen da. Formazio modulu honen helburu nagusia "Aisialdiko programen bidez ikasle etorkinek euskara ikasteko egitasmoa programan" lan egingo duten hezitzaileak prestatzea izango da; hau da, haurrekin eta gazteekin interbentzio-programak garatzeko hezitzaileak prestatzea. Hezitzaileek, aisialdiko talde eta ekintza desberdinetan praktikak egiteko aukera izango dute. Ikastaro hau egiten duten hezitzaileek ziurtagiri bat jasoko lukete eta programa honetan haur eta gazte etorkinekin lan egiteko lehentasuna izango dute.

	<p>AISIALDIAN HAUR ETA GAZTEEKIN LAN EGITEKO OINARRIZKO IKASTAROAren helburua, berriz, gazte etorkinei zuzendutako formazio ikastaroa da. Helburu nagusia, “Aisialdiko programen bidez ikasle etorkinek euskara ikasteko egitasmoa programaren” barruan zehazten diren haur eta gazteentzako programetarako Euskal Herritik kanpo etorritako hezitzaile laguntzaileak formatzea izango da. Ikastaroa egiten duten gazteek ziurtagiria jasoko lukete, eta titulua lortzeko praktikak egin beharko lituzkete.</p>
KONTAKTURAKO	<p>Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA www.kontseilua.org Tl: 943 591 200</p>

AISA, ETORKINAK EUSKALDUNTZEKO PROIEKTUA	
HARTZAILEAK	Jatorrizko hizkuntza desberdinak dituzten etorkinak.
KUDEATZAILEAK	HABE, Euskaltegiak.
BITARTEKOAK	20 ikastunitate 4 liburutan bilduta, ikasle eta irakasleen libururak. Bideoak, entzungaiak eta atazak osatzeko materiala eta irudi bidezko 1.000 hitzez osatutako hiztegia.
DESKRIBAPENA	<p>Proiektu honek 60 orduko ikastaroa eskaintzen du eta etorkinek euskaraz oinarrizko maila lortzea du helburu nagusia; ondoren, euskaltegien sarean sartu ahal izateko.</p> <p>Proiektua atazetan oinarritzen da. Gai bat ardatz hartuta, ikasleak eginkizun komunikatibo bati begira hainbat jarduera egin behar ditu ikasgelan hizkuntza entzutea eta erabiltzea posible izateko.</p> <p>Ataza batzuk ikaslea gai nagusira hurbiltzeko erabiltzen dira, eta horiek dira, hain zuzen, Euskal Herriko kulturarekin zerikusia duten xehetasunak ematen dituztenak, baita beste kulturen artean harremanak sortzeko baliagarri direnak ere.</p> <p>Ikastunitate bakoitzeko egoera komunikatiboa Juliana izeneko pertsonaiak aurkezten du.</p> <p>Beste hainbat atazatan ikasleentzako eguneroko informazio interesgarria biltzen da, etorkinek izan ditzaketan beharrei erantzuteko.</p>
NON BURUTU DEN	Zarautzen, Bilbon, Irunen, Ermuan, Gasteizen eta Donostian, esaterako.
KONTAKTURAKO	<p>HABE www.habe.euskadi.net info@habe.org Tl: 943 022 600</p>

2Daide: GAZTEEKIN ZERBITZU SOLIDARIOAK LANTZEKO EGITASMOA	
HARTZAILEAK	Gazte etorri berriak.
KUDEATZAILEAK	Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Eskola.
BITARTEKOAK	Etorri berrien adin bereko gazte taldeak.
DESKRIBAPENA	Egitasmoaren helburua gazte-talde batek adin bereko etorri berriei elkartasunezko zerbitzua eskaintzea da. Horretarako, lehen urratsean, Urtxintxa Eskolak dinamizatu-ko duen ikasketa-prozesuaren bidez, bertako gazte-taldeak etorri berrien taldeari zein zerbitzu emango dion landuko du. Bigarren urratsean, zerbitzua emateko bertako gazteak trebatu eta prestatuko dira, eta azken urratsean, gazteek adin tarte bereko etorri berrientzat prestatutako elkartasunezko zerbitzua eskainiko diete.
NON BURUTU DEN	Pasaian.
KONTAKTURAKO	Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Elkartea www.urtxintxa.org gipuzkoa@urtxintxa.org Tl: 943 270 033

**5. UDALERRIAN EUSKARAREN
ERABILERA AREAGOTZEKO
ZENBAIT PROGRAMA**



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Udalari herri-mailakoa planifikatzea dagokio: herrian sortzen diren inizatibak sustatzea, ikastetxe barneko hizkuntzaren egoera hobetzen laguntzea eta ikastetxean jasotakoa hortik kanpo modu naturalean erabiltzen laguntzea.

Udalerrri-mailako planak, beraz, ikastetxe bakoitzean garatzen diren Hizkuntza Normal-kuntzako Planaren osagarria izan behar du eta udalerrian garatzen ari dena (aisialdia, udalekuak, harrera-plana, ikastaroak, kirola, familien bidezko transmisioa, kultura-eskaintzak...) koherentea eta lagungarria izan behar du normalizazioa lortzeko.

Haurrek, eta batez ere gazteek, haien artean euskaraz hitz egiteko aukera eta ohitura zabaltea helburu duen udalerriko euskararen normalizazio-plana egiteko Udalak eskolarekin elkarlanean aritu behar du. Lan horretan, honako arlo hauek hartu behar dira kontuan:

- Herrian dauden taldeen, inizatibaren eta eskaintzen informazioa zabaltea.
- Herritarrek motibatzea.
- Eskaintza berriak sustatzea.
- Eskaintzak bermatzea.
- Gazteen inplikazioa bilatzea.
- Herritarrek euskaraz aritzeko sortzen dituzten inizatibak sustatzea.

Azken horri helduz, nola lagundu lekiok gazte-talde bati euskaraz naturaltasunez hitz egitera? Haien gustuko diren jardunetan euskaraz aritzeko aukera emateak asko lagun lezake. Horretarako, markoak ongi finkatuta eta adostuta egon behar du. Hau da, euskaraz bizitzeko guneak identifikatu eta aukeratu behar dituzte gazteek, erakargarriak direlakoan eta irabazteko gehiago dutelakoan.

Udalerriko euskararen normalizazio-planaren ikuspegitik haxe esan liteke:

- Eskolak bermatu behar ditu euskarazko ahalik eta ezagutzarik jasoena eta motibazio eta erabilera indartsuenak.
- Eskola bidez jasotakoari jarraipena eman behar zaio handik kanpora, eta osatu behar da eskaintzak eskuratzen eta gazteen gertuko harreman-sarea osatzen duten eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz eskaintzen, aisialdiko eta lagunartean euskaraz hitz egiteko aukera sustatzen eta abar.

Izan ere, haurrak gazte egiten diren heinean, erabileraren abiapuntua eta motorra motibazioa izango da.

Gazteek protagonista izan behar dute. Zuzenean eta aktiboki parte hartu behar dute prozesuan; hau da, gazteentzat den hura gazteekin garatu beharko da.

Bada udalerririk bultza dezakeen beste alde bat. Euskal Herriko hainbat herritan bere ondare kulturala transmititzeko plana jorratzen hasi da. Zalantzarik gabe, kultura-ondare nagusia euskara da. Hala ere, euskarak bizi behar badu, herri-identitatea eta euskal kulturaren babesa behar ditu.

Herriko ondarea transmititzean, herriaren arima da transmititzen eta ezagutzen ari da. Gainera, transmisioak duen gertutasunagatik, ezagutzeko interesa sor lezake ikasleengan, ezagutzak bertakoagoa sentitzen lagun diezaioke, eta, ondorioz, komunitatea sortzen eta kohesionatzen lagun dezake. Iritsi berriak ugaritzen ari diren honetan, oso interesgarriak izan litezke halako ekarpenak. Badakigu, bestalde, gertutasunak motibazioan, emozioan eta ezagutzan modu positiboan eragiten duela, eta bizitza errealean aplikagarria den heinean, hizkuntza-gaitasunak bereganatzeko bitarteko ezin hobe bihurtzen duela.

Beraz, udalerriaren erabilera sustatzeko udalerriaren dauden eta sor daitezkeen harreman-sareak oso kontuan izan behar dira.

Ondoren aurkituko dituzun programetan horiek guztiak aintzat hartzen dira. Horrela, ondare kulturalaren transmisioan, udal-planetan eta gurasoengan, euskaldun zahar zein euskaldun berri, eragitea dute helburu.

ARRASATEKO UDALAREN PLANA	
HARTZAILEAK	Gurasogaiei eta Arrasateko haur eta gazteen gurasoei, haur zein gazteei eta Arrasateko herritarrei, oro har.
KUDEATZAILEAK	Arrasateko Udala.
BITARTEKOAK	Familia-transmisioa: <i>Zorionak, ama izango zara materiala, Kantu eta jolasen DVDA, Euskarazko produktuen katalogoa eta gurasoak.com</i> Zehar-lerroak: Eskola kirola / kirola euskaraz, Gazteak eta administrazioa, Gidabaimena euskaraz eta Haur etorkinentzako errefortzu-klaseak zein material didaktikoa
DESKRIBAPENA	Udalaren planak bi lan lerro izan ditu, batik bat: alde bate-tik, udalaren plana ikastetxeen lanaren osagarri izatea; eta bes-tetik, familia-transmisioa eta zehar-lerroak kontuan izatea. Familia transmisioa: lan lerro honen helburu nagusia familian eragitea da, gurasoak baitira transmisioaren gakoa. Horretar-ako, plan honetan, euskara familia bidez transmititzeak duen garrantzia jendarteratzea eta guraso euskaldunak sentsibili-zatzeaz gain, gurasoen eskura hainbat tresna jarri dira fami-lia-hizkuntza euskara izan dadin. Familia-bidezko transmisioan eragiteko esku-hartze guneak, berriz, osasun-zentroak, ludotekak eta ikastetxeak izan dira. Zehar-lerroak: ildo honen helburua, nagusiki, eskolaz kan-poko esparruetan euskara erabiltzeko aukera bermatzea da; hau da, euskararen ezagutza eta kalitatea areagotzea eta es-kolatik kanpo haur eta gazteek euskara erabiltzeko dituzten aukerak zabaltzea.
NON BURUTU DEN	Arrasaten. Badira Euskara Normalizatzeko Planak eginak di-tuzten beste zenbait udal: Lasarte-Orian, eta Bergaran, esa-terako.
KONTAKTURAKO	ARRASATEko Udala www.arrasate-mondragon.org udala@arrasate-mondragon.net TI: 943 252 000

PLA EDUCATIU D'ENTORN	
HARTZAILEAK	0-18 urte bitarteko haur eta gazte guztiak
KUDEATZAILEAK	Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Departamentua, Hezkuntza-ikuskaritza, Udaleko eta Generalitateko hezkuntza- eta administrazio- zerbitzuak eta parte hartu nahi duten elkarte eta erakunde guztiak.
BITARTEKOAK	
DESKRIBAPENA	<p>Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Departamentuak Etor-kinak Ingurune Sozialera Egokitzeke Hezkuntza Planak ezarri ditu hainbat herritan.</p> <p>Heziketan, eskolak, familiak eta inguru guztiak duen eragina kontuan hartuta diseinatu dituzte plan horiek. Helburu nagusia katalanaren erabilera eta kohesio soziala bultzatzea da. Planaren helburuak hauexek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola-arrakasta handitzea, kolektiboen arteko aldeak murriztuz. • Hezkuntza-sareak indartzea. • Kolektiboen arteko aldeak murriztuz, aisialdiko ekin-tzetan parte hartzea indartzea. • Familiaren, eskolaren eta ingurunearen arteko loturak indartzea. • Katalanaren presentzia eta erabilera hobetzea. <p>Bestalde, zazpi printzipiotan oinarritzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzen duten hezkuntza-eragile guztien inplika-zioa, ikastetxeen lidergoarekin eta udaletxearen li-dergo instituzionalarekin. • Hezkuntza-prozesuan esku hartzen duten sektore guz-tien parte-hartzea eta koordinazioa. • Sarean lan egiteko, oinarritzko tresnatzat konfiantza, el-karrizketa eta kontsentsua hartzen ditu. • Dezentralizazioa. Helburuak lortzea ahalbidetuko du-ten tokian tokiko ekimenak bultzatzeko eta hezkun-tza-eragileek lotura eta identifikazioa sentitzeko. • Berrikuntza eta hezkuntza-kalitatea, hezkuntzaren er-ronka berriei erantzun zehatzak emateko. • Finantzazio partekatua, inplikaturako administrazioen aldetik. • Iraunkortasuna. Hezkuntzaren jarraipena eta kohe-rentzia lortzeko beharrezko diren ekintzak bermatzeko.
NON BURUTU DEN	Kataluniako 80 udalerritan.
KONTAKTURAKO	GENERALITAT de Catalunya www.gencat.cat/educacio Tl: 902 400 012

FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA OARSOALDEAN	
HARTZAILEAK	Oarsoaldeko familiak.
KUDEATZAILEAK	OARSOALDEA Garapen Agentzia. Programa ahalik eta modu eraginkorrean aurrera eramateko lan-banaketa egin da Udalen, ikastetxean, euskara elkarteetan eta euskaltegien artean.
BITARTEKOAK	Komunikazio-plana leloekin, clownak, DVDa eta esku-orriak, <i>Gurasoak gara</i> gida, <i>Kontadazu ipuin bat</i> ekimena, <i>Kuadrillategi</i> , ikastaroak, tailerrak.
DESKRIBAPENA	<p>Hainbat programa jarri dira abian, hauexek dira batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Familia-bidezko jarraipena: Programa honen helburua bikote euskaldunak sentiberatzea da, bikote euskaldunek beren hizkuntza-jokabideez eta horien ondorioez ohartaraztea. Horretarako, 0-5 urteko haurren guraso-bileretan clown saio bat (5-7 minutukoa) txertatu da. Euskaldunei eta erdaldunei beren mezuak igortzen dizkie, era gordinen. Ondoren, gurasoentzako orientabideak eta lekukotzak dituen DVDa banatzen die. Azala bikote tipologiaren arabera sailkatutako mezuak aurkezten dituen esku-orria da. <p>Jaioberrien gurasoei <i>Gurasoak gara</i> gida eta lelo bat inprimaturik duen objektu erabilgarria oparitzen zaie, hainbat mezu dituen orri batekin.</p> <p>Euskarrietan eskaintzen diren mezuak adinka antolatu dituzte, urteen joan-etorrian errepika ez daitezen eta eraginkorrako izan daitezen.</p> <p><i>Kontadazu ipuin bat</i> ekimena gehitu zaio programa horri. Eskualdeko guraso, aitona-amona eta izeba-osabei ipuin labur bat sortzeko edo klasiko bat moldatzeko eskatu zitzaion. Hogei ipuin bildu ziren, eta haien arteko aukeraketa egin ondoren CDan grabatu ziren.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Kuadrillategi</i>: Gazteekin lanketa berezia egin beharra ikusi zen haien artean euskarazko hizkuntza-ohiturak finkatzeko eta indartzeko. • <i>Irrati-kuñak</i>: Guraso euskaldunei eta erdaldunei zuzenduriko mezuarekin irrati kuñak egin dira Euskadi Irratian eta Radio Euskadin.
NON BURUTU DEN	Oiartzunen, Pasaian, Lezon eta Orereta-Errenterian. Buruntzaldean ere badute plan bat egin. Osasun-etxeek ere parte hartzen dute.
KONTAKTURAKO	OARSOALDEA Garapen Agentzia www.oarsoaldea.net oarsoaldea@oarsoaldea.net TI: 943 49 41 29

ULERTZEA HELBURU	
HARTZAILEAK	Euskara ulertzen ez duten gurasoak.
BITARTEKOAK	100 orduko ikastaroa.
DESKRIBAPENA	<p>Programaren helburua euskaraz ulertzen ez duten gurasoek oinarrizko ulermen-gaitasuna eskuratzea da.</p> <p>Laguntza-saioak 100 orduko iraupena du. Erabiliko den metodologia benetako elkarrizketetan oinarritu da, hizkera erraza eta ulergarria erabiliz.</p> <p>Hasiberritan aditu baten esku egon daiteke saioa. Erdialde-tik aurrera, ordea, guraso horren kideak arituko dira, poliki-poliki mintzalagun edo solaskide moduko jende-sareen bidez: bikoteak edo guraso taldekideak jardun dezake berekin hizkuntza jendarteratzaile gisa. Adituak, orduan, prozesu horren begirale gisa jokatu luke, aurrerabidea gainbehera etor ez dadin.</p>
NON BURUTU DEN	Oraingo, proposamen gisa aurkeztu da UDALTOP udaletako euskara-zerbitzuen topaketetan.
KONTAKTURAKO	Pello Jauregi Etxaniz www.huhezi.edu tl: 943 714 157

AISA EUSKALGILE	
HARTZAILEAK	Guraso euskaldunak.
BITARTEKOAK	Lau orduko saioa.
DESKRIBAPENA	<p>Programaren helburua gurasoak euskaraz egiten duenean ahalik eta erosoan nola sentitu aztertzea da; nahiz euskara trankesdunari, nahiz hitz egin ez arren euskara ulertzen duenari ari bazaio ere.</p> <p>Saioak honako bi zutabe nagusi hauek izan litzake:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- gaitasun estrategikoa landu: era batean esanda ulertu ez dena beste era ulergarriagoan esanez. • Amarru batzuk ezagutu, nekea arintzeko eta atseden hartzeko.
NON BURUTU DEN	Oraingo, proposamen gisa aurkeztu da UDALTOP udaletako euskara-zerbitzuen topaketetan.
KONTAKTURAKO	Pello Jauregi Etxaniz www.huhezi.edu tl: 943 714 157

HERRIA EZAGUTZEN	
HARTZAILEAK	Ikastetxeetako ikasleak.
KUDEATZAILEAK	Errenteria-Oreretako Euskara Zerbitzua, <i>Hik Hasi</i> euskal heziketarako aldiakaria, ikastetxeetako arduradun pedagogikoak.
BITARTEKOAK	Web-orria, unitate didaktikoak, ipuinak, komikiak, DVDa.
DESKRIBAPENA	<p>Programa honen helburu nagusia haur eta gazteei herriko ondare kulturalaren ezagutza hurbiltzea da, herri-identitatean sarkontzea, alegia. Programak bi maila ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Lehenengo mailan herriko ondareari buruz bilduta dagoen askotariko materialaren azterketa egiten da. Era berean, herriko eragile eta jendearekin elkarrizketak egiten dira. Ondoren, diagnosia egiten da: zer falta den biltzeko identifikatzen da eta bilduta dagoena nola jendarteratu daitekeen proposatzen da. 2. Ondoren, proposamen guztien artean, egokienak edo bideragarrienak aukeratzen dira. Errenteria-Oreretan, adibidez, toponimia lantzen duen web-orria osatu da, eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat 6 unitate didaktiko prestatu dira. Egitasmoaren barruan Haur Hezkuntzakoentzat ipuin bilduma bat osatzea ere badago, bai eta DBHko ikasleentzat herriko historia jasotzen duen komiki bat sortzea ere.
NON BURUTU DEN	Errenteria-Oreretan. Badira herriko ondare kulturalaren gaia jorratu duten beste hainbat herri eta beste motako proposamenak egin dituztenak: Pasaia, Nerbioi-Ibaizabal bailara, Bermeo eta abar.
KONTAKTURAKO	Errenteriako Udaleko Euskara Zerbitzua www.errenteria.net/ euskara@errenteria.net Tel: 943 44 96 13

**6. UDALEZ GAINDIKO
ADMINISTRAZIOAK EUSKARAREN
ERABILERAN AREAGOTZEKO
ZENBAIT PROGRAMA**



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Euskal Herrian, hainbat administrazioen esku daude hezkuntza- eta hizkuntza-eskumenak, eta ondoriozko hizkuntza-planifikazioa. EAEren kasuan Eusko Jaurlaritzarena da ardurua hau, Nafarroa Garaian Nafarroako Gobernuarena eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren kasuan, Frantziako gobernuarena.

Horrela, normalizazioa ahalbidetuko duen lege-markoa finkatzea, hizkuntza-politika eraginkorra egitea eta baliabideak jartzea naitaezkoa da. Halaber, herritarrak euskararen aldeko jarrera izateko eta konpromisoa hartzeko diskurtso koherentea eta motibagarria erabiltzea ere badagokie.

Ildo horretan, ondokoak dira hartu beharko lituzketen neurriak, gure ustez:

- **Eskolaren markoa ongi definitzea:** Euskara eskola-hizkuntza izatea eta ikastetxe bakoitzak bere Hizkuntza Normalkuntzako Plana garatzea. Gainera, iritsi berrien integrazio egokia ziurtatzeko harrera-planen irizpide argiak zehaztu beharko lituzkete.
- **Arlo anitzetako bitartekoak jartzea:** Euskararen babesa eta garapena ahalbidetuko dituen legeria behar da. Eskolaren egitekoa ongi definitu behar da, eta hori lortzeko behar diren bitarteko material eta pertsonalak jarri behar dira.
- **Eskolako langileak egonkortzea:** Erabileran aurreratu ahal izateko, egitasmoak ongi planifikatu behar dira eta jarraipena egin behar da. Horretarako, ezinbestean, eskoletako langile-talde egonkorra izan behar du: prestakuntza egokia duen normalizatorako teknikoak izateko, plana diseinatzeko eta adosteko, hizkuntza-arduradun gaituak izateko, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, hobekuntzak diseinatze-ko eta abar.
- **Prestakuntza ona lor dadin neurriak hartzea:** Oinarriko prestakuntzari dagokionean, Irakasle Eskoletan euskara maila ona eta hizkuntzak ongi erabiltzeko eta irakasteko trebezia lortzea irakasle guztiengan. Etengabeko prestakuntzan, berriz, hezkuntzan ari diren langile guztiak ahozkotasuna eta komunikatorako tresna gisa erabiltzeko tratatzea.


Azken finean, hezkuntzak herriaren garapenean eta etorkizunean duen garrantzia jendartean zabaldu behar dute Administrazioek, eta horrekin koherente jokatu. Egiteko hori ez dagokio Hezkuntza Sailari soilik, bai eta beste sailei ere. Horregatik, gure ustez, Administrazio osoaren zeregina da egiteko horri ongi erantzutea.

Horiek guztiak kontuan, udalez gaindiko administrazioak euskararen erabilera eragiteko gara ditzakeen hainbat programa aurkeztu nahi izan ditugu jarraian; euskararen sustapena eta gazte-egonaldiak lantzen dituztenak, hain zuzen.

GAZTE EGONALDIAK	
HARTZAILEAK	Euskal Herri osoko 13-18 urte bitarteko gazteak.
KUDEATZAILEAK	Euskal Herriko IKASTOLAK.
BITARTEKOAK	Film laburrak, musika, blogak, irrati-saioak, graffitiak eta abar.
DESKRIBAPENA	<p>Programa honen bidez gazteak, euskara lantzeraz eta egun politak pasatzera ekarri nahi dira; ikus-entzunezkoak aitzakia moduan hartuta.</p> <p>Programaren helburu nagusia euskararen motibazioan eta erabileran eragitea da. Horretarako, hainbat ikus-entzunezko bitarteko erabiltzen dira, gazteek ikus dezaten euskaraz ere gauza modernoak egin daitezkeela.</p> <p>Programaren erronka nagusienak adina eta euskararen erabilera zein motibazioa dira. Aurreiritzi asko bertan behera uzteko baliagarri izatea du helburu.</p> <p>Gazteek sormena landu behar dute egonaldietan, eta ekimena izatea eskatzen zaie. Horixe da ohiko Udaleko eta Gazte Egonaldien arteko ezberdintasuna, gainera, begiralea bideratzailea baino ez da.</p> <p>Gazteek ardurak hartzen dituzte, beraz. Ekintza nagusienerako bat film laburra egitea da, hasierako sorrera-prozesutik editatzeraino. Lantaldeak sortu behar dituzte, batzuk gidioiaz arduratzen dira, beste batzuk kameraz, beste batzuk kokapenez eta abar. Ondoren, film labur horiek blogean zintzilikatzen dira.</p> <p>Programa hau aurrera eramateko hainbat eragileren laguntza dute: Hala Bedi irratia, UEU, Saregunea eta Berria, besteak beste. Eta auzolan hori da, hain zuzen, programa aberasten duena.</p>
NON BURUTU DEN	Espejon.
KONTAKTURAKO	Euskal Herriko IKASTOLAK www.gazte-egonaldiak.net

TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal), EUSKARA SUSTATZEKO TAILERRAK	
KUDEATZAILEA	EMUN. Lana euskalduntzeko kooperatiba.
BITARTEKOAK	Tailerrak.
DESKRIBAPENA	<p>Programa honen helburuak hauexek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz egiteari lotutako deserosotasuna murriztea. • Hizkuntza-jokabide asertiboari esker gusturago egotea. • Baliabide gehiago sortzea. <p>Programak hobetzeko ditugun ohituretan eragiteko baliabideak eskaintzen dizkigu, ohitura eta esperientzia propioei arreta jarritz.</p> <p>Euskaraz hitz egiteak ez digu zalantzarik sortu behar eta modu erosoan jarduteko aukera geure esku dagoela argi izan behar dugu.</p> <p>TELParen bidez, dugun ezagutza beste era batera antolatzen ikasiko dugu eta, gainera, hobetzeko aukerak ikusteko lagungarri izatea bilatzen du.</p> <p>Tailerretan eskaintzen diren edukiak, berriz, hauexek dira: oinarri teorikoak, ikuspegi estrategikoa, baliabideak, konbergentzia-mailak eta komunikazio asertiboa.</p>
NON BURUTU DEN	Elorrión, Ortuellan eta abar.
KONTAKTURAKO	EMUN. Lana euskalduntzeko kooperatiba www.emun.com/hizkuntzazerbitzuak/telp Tf: 943 711 847

**7. DISKURTSOA BALIATU
EUSKARAREN
ERABILERA AREAGOTZEKO**



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Hainbat ikuspegitik begiratuta, psikologikotik batez ere, izugarrizko garrantzia du jendartean diskurtso bat sortzea eta zabaltzeak. Argumentuak eman behar dira euskara jakiteak dakartzan onuren inguruan eta erabilera sustatuko duen motibazioa aktibatu behar da esparru guztietan.

Diskurtsoak oinarri hauek izan ditzake:

- Aukera-berdintasuna eskaintzen du.
- Ondare kulturala da.
- Herritarrak kohesionatzen ditu.
- Euskararen ezagutzak onurak ekartzen ditu.
- Euskarak komunikaziorako tresna eragingarria izan behar du.
- Eskolatik espero dena adieraziko du.
- Euskararen izaera modernoa erakutsiko du.

HARREMANETARAKO



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

EBETE euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eta tresnak
www.ebete.org
info@ebete.org
Tl: 660 245 539

TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa
www.topagunea.org
bulegoa@topagunea.org
Tl: 946 215 780

Gipuzkoako URTXINTXA Aisialdi Elkarte
www.urtxintxa.org
gipuzkoa@urtxintxa.org
Tl: 943 270 033

TTAKUN Kultur Elkarte
www.ttakun.com
ttakun@ttakun.com
Tl: 943 371 448

Ordiziako JAKINTZA ikastola
www.euskaljakintza.com
Tl: 943 160 540

SORTZEN-IKASBATUAZ Elkarte
www.sortzen-ikasbatuaz.org
orokorra@sortzen-ikasbatuaz.org
Tl: 943 303 504

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza EUSKARA-zerbitzua
www.educacion.navarra.es
educacion.informacion@navarra.es
Tl: 848 426 500 – 848 426 588

Euskal Herriko IKASTOLAK
www.ikastola.net
gie@ikastola.net
Tl: 943 445 108

DEBAGOEINako Mankomunitatea
www.debagoiena.com
Tl: 943 793 389

Gipuzkoako FORU ALDUNDIA
www.kirolaeuskaraz.net
Tel: 943 112 394

Andoaingo LARRAMENDI ikastola
www.andoainikastola.net
Tl: 943 593 525

AED Arrasate Euskaldun Dezagun
www.topagunea.org, www.goiena.com
aed@topagunea.com
Tl: 943 771 228

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA
www.kontseilua.org
Tl: 943 591 200

TXATXILIPURDI Elkartea
www.txatxilipurdi.com
idazkaritza@txatxilipurdi.com
Tl: 943 795 448

HABE
www.habe.euskadi.net
info@habe.org
Tl: 943 022 600

ARRASATEko Udala
www.arrasate-mondragon.org
udala@arrasate-mondragon.net
Tl: 943 252 000

GENERALITAT de Catalunya
www.gencat.cat/educacio
Tl: 902 400 012

OARSOALDEA Garapen Agentzia
www.oarsoaldea.net
oarsoaldea@oarsoaldea.net
Tl: 943 49 41 29

Pello Jauregi Etxaniz
www.huhezi.edu
tl: 943 714 157

Errenteriako Udaleko Euskara Zerbitzua
www.errenteria.net
euskara@errenteria.net
Tl: 943 44 96 13

Euskal Herriko IKASTOLAK
www.gazte-egonaldiak.net/

EMUN Lana euskalduntzeko kooperatiba
www.emun.com/hizkuntzazerbitzuak/telp
Tl: 943 711 847





EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN

KONTSEILUA

www.kontseilua.org